

# ...eta **kitto!**

764 zkia. 2011-V-20

ASTEKARIA

TOKIKOM



## Eibarko emakumeen historiari ateak zabaltzen

Burbuila **batean ez bizitzeko**

**J. Etxeberria, 13**



– Hilabete bateko **doaneko** proba

**Beitu**  
Zentro Optikoa  
**943 700 230**

R.P.S. 5508



# ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...



irribarrerik  
onena  
lortuko duzu!

...eta atera  
egiezu etekina  
hortz-zuriketan di-  
tugun  
**PROMOZIO  
BEREZIEI.**

**Zatoz eta  
KONTSULTA egin!**

**Badirelako  
gauza batzuk  
galtzea komeni  
ez direnak...**

**IRAZABAL  
KLINIKAN  
txikienen  
aho-hortzetako  
prebentzioaren  
alde egiten  
dugu apustu.**



**Egizuz PADI-ren azterketak.**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.  
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)  
Tel. 943 20 85 52

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi, Silbia

Hernandez eta Ander Salegi

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76**AZALEKO ARGAZKIA:**

Gregorio Santa Cruz Fondoa

(Eibarko Udal Artxiboa)

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.500 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HARTZEKOZ JOSITTA / BETETA EGON.-** Kejia baino ez daukanagatik esaten da. "Autua berak hondatu eta ondiok hartzekoz beteta".**HARTZEUAK EGIN.-** Arrazoi haundirik gabe haserretzea. "Aurria hartu bestieri eta hartzeuak egin berak".**HARUTZ DA HONUZKUA.-** Joan-etorrikoa. "Harutz da honuzkuak, batera, kontu hobia dau".**HARUZTU.-** Harutz mobidu. "Apu bat haruzteko mesede egingo bazenduke".

## ESKUTITZAK

### OKERRAK ZUZENTZEN

Aurreko asteko alean, Ipurterreko Ipuin Lehiaketari buruz argitaratu genuen berria hankasartzea izan genuen eta irabazleen inguruan emandako informazio osoa ez da zuzena: batetik, DBHko 1. eta 2. mailetarako ezarritako atalean saritutako Sukaina Besri Mogel Isasi BHI ikastetxekoa da (eta ez Itziokoa) eta 3. eta 4. mailetarako atalean aurtengo sariduna La Salle ikastetxeko Olaia Sarasola izan da (berria ageri den Iker Lluvia iazko edizio irabazlea izan zen).

Gainontzeko saridunen inguruko datuak zuzenak dira:

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailan, D ereduari La Salle Isasi ikastetxeko Ana Oiarzabal Gisasola eta B ereduari, berriz, Aldatzeko Miren Elorza Abascal; 3. eta 4. mailetan, D ereduari Juan Antonio Mogel ikastolako Maddi Berazarentzat izan da saria eta B ereduari Aldatzeko Miriam Rosalesentzat; eta 5. eta 6. mailetan, D ereduari Juan Antonio Mogel ikastolako Jone Arakistain izan da irabazlea eta B ereduari Aldatzeko Laura Alvarez. Okerraren ondorioz sortutako nahasmena barkatuko diguzuelakoan, mila esker.

...ETA KITTO EUSKARA ELKARTEA

### KALAMUAKO PARLAMENTUKO ONENEI DEIA

Euskal Jaiaren edizio berri honekin hasteko, datorren egunean Kalamuako Parlamentuko lehiaketa jokatu da bigarren urtez jarraian Klub Deportiboan. Ekitaldia 19.30etan hasiko bada ere, beharrezkoa da aurretik apun-

tatzea Deporren bertan; hori dela-eta, ez beldurrik izan eta erakutsi zuen jakinduria guztia. Animo, bada, zuekin batera, besteok ere ikasiko dugu-eta!

ARRATE KULTUR ELKARTEA

### ASTELEHEN GOIZEAN HAUTESKUNDE ALEA

Domekan hauteskundeak izango direla eta, horrelakotan egin ohi duen moduan oraingoan ere ...eta kitto!-ko lantaldeak goizean goizetik jardungo du beharrez, alderdi guztietako ordezkariak botoa ematean erretratu atera eta kanpainaren inguruko inpresioak azaldu eta espero dituzten emaitzen prebisioa eskatzeko. Behin emaitza guztiak jasota, zenbakitan, grafikotan zein tauletan erraz irakurtzeko moduan prestatuko ditugu eta gauean

politikariek egindako azken balorazioekin batera, den dena astelehen goizean kiosko, okindegi zein bestelako puntuetan musutruk banatuko den hauteskunde eskaintako ale berezian pilatuko ditugu. Bestalde, egun osoan zehar www.etakitto.com gure webgunean, zein Facebook-eko eta Twitter-eko profiletan azken orduko informazioa berritzen joango gara.

...ETA KITTO! KOMUNIKABIDEAK

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Artearen mundua oso gaizki dago: galeriek pentsaera atzerakoia dute, esklusibotasuna dago eta ez dira merkatu berrietara zabaltzen. Azken finean, negozio pribatuak dira, eta euren saldu egin nahi dute: krisia ere heldu zaie haien. Baina oso gutxi egiten dihardute artearen alde. Herri mailan, kultur etxe, diputazio eta abarren aldetik ere ez dago aukera handirik"

(Aitor Ruiz de Egiño, artista)

"Euskal Autonomi Erkidegoan 100.000 familiak daukate etxeko langileen zerbitzua: guztira, 70.000 langile inguru daude lan horretan, eurretatik bakarrik 15.400 Gizarte Segurantzaren izena emanda. Etxeko langileen %83k astean 40 orduetik gora lan egiten dute, kanpoko langileen %52k ez dute Gizarte Segurantzarik, ezta lan egiten duten etxeko bizi direnen %45ek ere."

(Isabel Otxoa, Etxeko Langileen Elkarteko ordezkaria)

EIBARKO  
UDALAGIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIAEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### ASPACEUEN BAZKARIXA

Eibarko ASpace-ko sorreran osasun zein hezkuntza arluetan biharrian jardun ebanak domekan alkatu egingo dira, ikastetxe pareko Iruki sagardotegixan bazkaltzeko. Irakasliak, logopedak eta ikasle-ohiak osatutako taldiaren topaketak, gaiñera, ikasturte honetan bertan erretirua hartuko daben lehenengo lau irakaslien jubilaziñuekin bat egingo dau.

### 3.000 EURO LORCARA

Lorcan (Murtzian) oiñ hurrengo gertatutako lurrikararen ondorixo larrixak jasan bihar dabeneri laguntzeko 3.000 euro bialdu dittu Eibarko Udalak, horrelako hondamendixak gertatzen diranerako gordeta egoten dan larrialdixetarako fondua erabillitza.

### ELGETAK MUNDUMIRA HARTUKO DAU

Maiatzaren 27, 28 eta 29xan Elgetak Mundumira jaialdixa hartuko dau eta, aureko ediziñuetan bezala, aurten be egitarau betebetia preparau dabe Euskal Herria aldizkarikuak. Hainbat taldek musutruk eskinduko dittuen kontzertuak ez eze, ibillaldixak eta bisita gidatuak be preparau dittue. Informaziño guztia [www.mundumirafesta.com](http://www.mundumirafesta.com) gunian topau zeinkie.

### SENDIAN PROGRAMIA

Zaintzaille ez profesional zein zaintzarako diru-laguntza jaso edo eskatu dabenendako bereziki pentsautako ikastarua emongo da Portalean (ikastaro gelan) ekaiñaren 1, 3, 6, 8, 10, 13, 15 eta 17an, 11.30xetatik 13.30xetara, Sendian programiari jarraituta. Matrikulia duan da eta interesa dakenak Pegorara juan biharko dabe eskaeria egittera, maiatzaren 27rako.

## Euskarazko komunikabidien kanpaina barrixa

MARTITZENIAN DONOSTIA-KO KOLDO MITXELENA KULTURGUNIAN ESKINDUTAKO PRENTSAURREKUAN, EUSKERAZKO HEDABIDE EZ PUBLIKUEN EGOERAREN GAIÑIAN jardun eban Topaguneko ordezkariak, otsailian ekindako bi-diari jarraituta. Izan be, orduan euskara hutsez jarduten daben 86 hedabide ez publikok kanpaina abiarazi eban, gizartian daken papera azpimarratu eta erakunde publikuen sostengu haundixagua eskatzeko. Kanpaina horren barruan, hedabidiak kontaktu erronda egitten jardun dabe otsailaren 15az geroztik, erakunde publiko eta alderdi politikueri euren eskaerak aurkezteko.

Aste honetako agerraldixan, Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundixekin bildu ostekuen barri emon dabe. Azaldu-takuari jarraituta, sektoriaren egoeriaren barri emotiaz gaiñ bereziki hiru esparru jorratu di-



Euskarazko hedabide askoren egoera larrixa ezagutarazi nahi da kanpainaaren bittartez.

ttue billeretan: diru-laguntzak, publizitate instituzionala eta herri erakundiekiko harremanak. Hedabidien eskaera nagusixak hiru puntutan laburbildu dittue: hasteko, eta krisixaren ondorixueri hobeto aurre egitiñ ahal izateko, 2012rako diru-laguntza publikuetan %25eko igoeria, publizidade instituzionalaren %25 euskarazko hedabidietara bideratzia eta hedabide eta instituziñuen arteko ma-haixxa osatzia, "hedabidiak bizitzen diharduen egoera estuaz bertan jarduteko".

Hedabidietako ordezkarien berbetan, "EAEko instituziñuak harremanetan sakontzeko" prest agertu dira, baiña "diru-laguntzen igoeria aittatzian, krisixan gagozela gogorarazi eta eragozpenak somatu dittugu". Gauzak holan egonda, eta gizartia euskarazko hedabide askok bizitzen diharduen egoera larrixaz jabetzeko, kanpaina berrixa ipiñi dabe martxan "Duten garrantziak jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz. Euskarazko hedabideak, denon beharra" leluari jarraituta.

## Komun barrixa ipiñi dabe Urkizuko parkian

AURREKO ASTIAZ GEROZTIK ERABILTZEKO MODUAN DAGO URKIZUKO PARKIAN, KIOSKO PARIAN ipiñi daben komun barrixa: herritar guztieri zerbitzua emoteko zabaldu barri daben komuna egunero egongo da zabalik, 06.30xetan hasi eta 23.00ak bittartian. Ekipamendurik modernuenarekin hornitutako komunak irisgarritasunerako arau guztiak betetzen dittu eta berez garbitzeko sistemian be badaka. Kanpokaldian, bestalde, altzairu herdoilgaitzezko 3 zutikako paxatoki ipiñi dittue, gizonendako. Komuna ipintzeko inbersiñua 51.500 eurokua izan da.



## Eibarko enpresak Elgoibarrera

GOI MAILLAKO TEKNOLOGIXA ARLUAN DIHARDUEN ADDED VALUE SOLUTIONS (AVS) ETA SCIENTIFICA ENPRESA BIXAK EIBARTIK ALDE EGINGO DABE, euren biharrarekin Elgoibarko Sigma industriadian segitzeko. Oiñ arte Azittaingo industriadian egon diran firma bixak euren jarduerarako toki gehixago bihar ebela argittu dabe enpresa-buruak eta, horregaittik, Eibarren eguazen aukerak aztertu ostian eta Elgoibarren eskindutako baldintzak hobiak zirala ikusitta, hara juateko erabagixxa hartu eta ekaiñaren erdialderako egoitza barrixan biharrian jarduteko moduan egongo dirala pentsatzen dabe. Enpresa bi izanda be, bulegueri eskindutako 1.000 metro karra-tuak konpartidu egingo dittue eta lantegixak alkarrengandik bereiztuta egongo dira, 2.500 metroko azaleria beteta. AVS enpresak zientzia arluan dihardueneri goi mailako teknologixia eskintzen detse eta Scientifica enpresakuak, barriz, partikulak antzematekuak fabrikatzen dittue.

# Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



EUSKARAZKO  
HEDABIDE  
EZ PUBLIKOAK

**asteko**  
**42**  
**datua**

enpresaren sorreran lagundu eban Debegeesak 2010ian: 21 Eibarren, 13 Elgoibarren, 3 Mutrikun, biña Ermuan eta Soraluzen eta bat Deban. Enpresaburuak 25/45 urte bittartekuak dira eta danera 52 lanpostu barri sortu dira eskualdian.

**Hiru hitzaldi Ricardo Alberdi Aste Sozialaren barruan**

DATORREN ASTIAN, ASTELEHEN, MARTITZEN ETA EGUAZTENIAN, ELIZBARRUTIKO IDAZKARITZA SOZIALAK (Justizia eta Bakea) eta Eibarko parrokiak antolatuta, XIX. Ricardo Alberdi Aste Soziala egingo da Eibarren. Azken jardunaldi bixetan krisixaren gaiñeko hausnarketia egin dabe eta oinguan be krisixa izango da datorren asteko hitzaldixen ardatza, produkziño sektoriari arreta berezixa eskinduta. Astelehenian Inmaculada Gallastegi EHUko Ekonometria Katedradunak jardungo dau, "Krisi ekonomikua eta lan-merkatuan dakan eragiña" izenburuari jarraituta. Martitzen Tomas Arrieta, EAE Lan-Harremanteko Kontseilluko presi-



Tomas Arrietak (argazkixan Ibarretxerekin) martitzen emongo dau hitzaldixa.

dentiaren txandia izango da, "Gizarte Segurantzza eta lan erreforma" izenburuko berbaldixarekin. Eta eguaztenian, programaren barruko azken hitzaldixa ("Agente ekonomiko eta sozialak krisixaren aurrian eta

testuinguru honetan hartutako neurrixak") Angel Toña Deustuko Unibersidadeko irakasliak emongo dau. Hiru hitzaldixak Portalean (areto nagusixan) izango dira eta 19.30xetan hasia dago aurreikusitta.

**Erreskate-txakurren gaiñeko jardunaldi arrakastatsuak**



AURREKO ASTEKO EGUAZTENIAN HASI ETA DOMEKA BITTARTIAN TXAKURRAK ERRESKATE ETA SALBAMENTUETARAKO PRESTATZEN JARDUTEN DABEN hainbat taldek bat egiñ eben Eibarren, alkarrekin jardun eta, holan, teknika eta biharrerako modu diferentia konpartitzeko aukeria izateko. Jardunaldixak Elorrixon egoitza dakan UCAS (Unidad

Canina de Salvamento) de Galahad taldiak antolatu dittu, bertatik jaixo barri dan UCAS de Arrate Eibarko taldiarekin batera. Egunotan herriko hainbat tokittan txakurrekin entrenatzen jardun dabe, arriskuko balizko egoerak eta inguruak sortuta. Estatuko hainbat herrittatik etorritakuekin batera, Argentina eta Portugaletik etorritako beste batzuk be ibilli dira entrenatzen.

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANS GROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egigurentarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxes. 943 20 72 24

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**  
EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 fax: 943 202564

**IBILALDIA ONDARRU**  
maiatza ren 29 an

**AUTOBUS ZERBITZUA IRTEN 10.00etan, Ego Gainetik BUELTATU 19.30etan - 7 euro -**

- J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA  
- ...ETA KITTOI EUSKARA ELKARTEA



Barixaku arratsaldian herri-kirolak ikusteko aukeria izan eben Urkizun. / MAIALEN BELAUSTEGI

## Galiziako doiñuak eta jatekuak nagusi

**AURREKO ASTEBURUAN, BARIXAKUAN HASI ETA DOMEKARA BITTARTIAN, URKIZU ALDIAN** Galiziako gastronomia eta folkloria jaun eta jabe izan ziran As Burgas Galiziako Etxekuak antolatutako Dia Das Letras Galegas jaixa ospatzeko antolatutakueri esker. Horrekin batera, jakiña, Euskal Herriko dantzendako zeñ herri-kirolendako tarterik ez zan faltan izan eta jaixak ospatu diran hiru egunetan, eta nahiz eta tarte-kamarteka eurixa botatzen

jardun, aurtenguan be martxa onian pasau dittue jaixak herrixaren beheko aldera bueltia emotera animau ziran eibartarrak zeñ kanpotik, beste herri batzuetatik jaixak erakarrirta gurera etorritakuak. Erregular hurrengo astera arte agurtuko zittuen jaixak, baiña aurten Euskal Herriko Galiziako Etxe guztiak batuko dittuan jaixa Eibarren iraillian egittekua danez, bixen bittartian kalendari-xuan goguan hartzeko moduko beste festa bat apuntatzen jua leike nahi dabenak.



Eguraldixak lagundu ez arren, giro onian bazkaldu zeben Kantabrian. / MAIALEN BELAUSTEGI

## San isidroak eurixa ekarri eban

**DOMEKAN ARRATEN SAN ISIDROREN OMENEZKO JAIXETAN PARTE HARTZERA JUAN ZIRANAK GUARDASOL ZEIN BESTELAKO ENPARAUEAN LAGUNTASUNA** bihar izan eben, goizetik eta seguruenik iñork inbitau barik eurixak be jaixarekin bat egittia erabagi eban eta. Edozelan be, programan jasotako ekitaldixak erregular, aurreikusittakuari jarraituta egin ziran eta eskualde osotik juandako basarritarrak ederto pasau eben Kantabrian euren dako antolatutako bazkarixan.

# auzorik auzo



## 25 urte betetzen dittuan Abontza auza jaixetan

**Gaur bertan abiatuko diran Abontzako jaixak, auzuak 25 urte betetzen dittuan honetan eta azken urtiotan egindakuaren bidetik, asteburu osua betetzeko moduko jai egitaraua preparau dabe Abontzako Itturixia alkartekuak.** Ohitturari jarraituta, jai batzordeko kiderik zaharrenak 18.30xetan botako daben txupinazuarekin hasiko dira jaixak eta, jarraixan, umiendako ikuskizuna (euskeraz) eskintzen hasiko dira Ane Monna Oskola eta Kamarroi antzerki taldekuak: "Ino Ino Ino... badator Bonbardino!!!". Behiñ hori amaituta DJFesta eta jai gastronomikuaren txandia aillegauko da: ardo-dastatzia eta patata-tortilla txapelketaren ostian, monologo saiuarekin agurtuko dittue gaurkuak. Bixar, barriz, goizetik hasiko dira ekitaldixak (suzirixak, buruhandixak, umiendako jolasak, txistorra-jana eta txikiteua), 14.30xetan hasiko dan 400 lagunendako paella-janarekin segitzeko. Arratsalderako toka eta igel-toka txapelketia, karaokia, txokolate-jana eta lehiaketetako irabazlieri sarixak banatzeko ekitaldixa egitteko asmua dake eta Gorritiren saiu amaitzian Lisker taldiaren berbenia hasiko da. Domekako mezarekin agurtuko dittue jaixak, hurrengo urterarte.

## eibar kaleka

### Santaiñes kalia

Mutur batian Ipurua kiroldegixa eta beste muturrian foball zelaixa dittuan kalia bixen bittartian oin momentuan hutsik daguan komentua eta San Pio X.a eliza zaharra be hartzen dittu alde batian eta pareko aldian, barriz, etxiak dagoz.

**Pegora kopurua: 16**

**Erroladatutakoak: 337**



*Eguazten arratsaldian aurkeztu eben Klub Deportibuak antolatzen daben Euskal Jaixaren beste ediziño bat, oinguan hillaren azken asteburuaren inguruan egingo dana: eguenian hasi "Kalamuako Parlamentuko lehiaketiarekin" eta domeka illuntze aldera amaitzeko "ohizkua dan herri kutsuko Larrain dantzarekin". Programaziñuak azken urtietakuari jarraituko detsa: barixakuko kontzertua Orixoko Gozategi musika taldiak eskinduko dau Untzagan montauko dan karpan eta naziñoarteko dantzen jaialdixak oinguan bikoteko dantza soltia eskinduko dau, kanpotik etorritako hainbat talderekin batera.*



Oiz - San Kristobal erromerixaren irudixa. / INDALIZIO OJANGUREN

## **Euskal Jaixak 46. ediziñua biziko dau hillaren azken asteburuan**

**B**ehiñ hauteskundien asteburua atzian lagata, Euskal Jaixarekin dogu hitz-ordua barriro Eibarren. Baiña, hori holan izanda be, 46. ediziño hau antolatzen dabenak diñoskuen moduan, bada hainbat ekitaldirako tokixa hartzeko sasoi: "Karpan egingo diran zapatuko kantu-afarirako eta domekako herri-bazkarirako txartelak aurretik hartu bihar dira: gero eta ohitura zabalagua bada be az-

ken orduan ibiltziarena, astelehenian izango da txartela jasotzeko azken eguna, zerbitzazera etorriko dan enpresari kopurua aurretik emon bihar detsagu-eta", esan deskue Deporreko ordezkariak. Gauza bera eguenian egingo dan Kalamuako Parlamentuko lehiaketiarekin: "Konkurso horretan parte hartzeko asmua daken bikotiak aurretik Deporren emon biharko dabe izena, eguna iritsi baiño lehen".

Arrate Kulturalak antolatzen daben lehiaketa horrekin hasiko da Euskal Jaixaren aurtengo ediziñua Deporren, eguenian 19.30-xetan. Hurrengo egunian, barixakuan, arratsaldeko 17.00etatik 19.00ak arte umiendako eta gurasuendako taillarrak eta jolasak izango dira Untzagan: "Personaje berezixak izango dittugu aurtun gurekin jolasian; gaiñera, zirko-taillarrak antolauko dira eta, jarraixan, jolasian jarduteko aukeria izango da". Ekitaldi hori Udaleko Euskara sailak antolatzen dau. Egunari agur esateko, Gozategi talde ospetsuaren doiñuak eta kantak beteko dabe asteburu horretan Untzagan ipiñiko daben karparen giro berezixa: "Barria be ipiñiko dogu".

### **Zapatua goizetik gabera beteta**

Artisau eta Basarritaren Azokiak hainbat arlotan gozatzeko aukeria eskinduko desku. Toribio Etxebarria kalia ardatz bihurtuta, goizeko 10.00etan hasi eta eguerdiko



Zapatu eguerdiko herri-kiroletan, urtero lez, gaztien aldeko apostua egin dabe antolatzailliak.

14.00xak arte, herriko hemeretzi ordezkari eta kanpotik etorritako beste zazpi euren produktuak jarriko dittue gure eskura. "Eibart-eko partaidiekin batera, kanpotik gurea etorriko diranak Euskal Jaixarekin zerikusixa daken produktuekin izango dira", diñoskue antolatzailliak. Hor izango dira, betiko moduan, Gisasola, Barrundia, Mandiolla, Mendigoitti, Gorostixa, Iturrria eta Sosola basarrixetako produktuak.

Eguerdixan herri-kiroletan eta bertsolariaren txandia hasiko da. "Bertsotan Xabi Astigarragak eta Jon Mikel Mujikak jardungo dabe. Harri jasotzen, Jagoba eta Goenatxo III.a etorriko dira, gazte maillako Euskadiko txapelduna eta txapeldunordia, eta aizkoraran Aratz Mugerza eta Julen Cañameres izango dira". Deporrekuak gaztien aldeko apustua egitten dabe holakuetan



Haraiñegun aurkeztu eben aurtengo programaziñua.



eta oinguan be ez da Eskolen Arteko Herri-Kirol lehiaketia faltako: *“Bosgarren ediziñua jokatu da, Mogel Isasi, Aldatze eta Itzioko ikasleekin”*. Goiz guztian talo-postua egongo da.

Euskal Herriko hainbat herritako trikitilariekin eta gure herriko Hankamotxak bertso eskolako bertsolariekin batera, Bertso

Arrabots taldia girotuko dau domekako erromerixia.



Triki Herri-Parranda hasiko da karpatik arratsaldeko 18.30xetan. Eurak arduratuko dira erdialdia girotzen eta kantu-afarirako motorrak berotzen. Azken hau gabeko 22.00etan hasiko da karpan eta, postrietara, Jainagak eta Narbaizak gidatuko ditue han izango diran kantak eta erromerixia. Sarrerak salgai dagoz

oindio Deporren, 20 eurotan (14 ume, ikasle eta langabetuen kasuan): *“Egun gitxi falta dira sarrerak kentzeko eta interesatuta dagoenak komeni da lehenbailehen pasatzia jasotzera Deportibotik, ezin dogu-eta azken egunera arte itxaron”*.



Kantu-afarirako txartelak lehenbailehen erretiratzea komeni da. / LEIRE ITURBE

Jainagaren eskolako trikitilariekin batera, kalejiria egingo dabe Untzagaraiño, bertako plazan Ezpalak bikoteka egingo dan naziñoarteko dantza solte jaialdixa eskintzeko: *“Asturiaseko Vezos Astures, L’Auvergneko La Bourrée Gannatoise, Transilvaniako Kikerics, Italiako Rareca Antica, Zaragozako Xinglar Aragoiko folklore tradizionalen taldia eta Galdakaoko Andra Mari izango dira Kezkakuokin batera jaialdi horreta”*, esan deskue Deporreko Dantza Taldekuak. Behiñ hori amaituta, herri-bazkarixa egingo da karpan.

Tripia ondo asentatuta, 17.00etatik aurrera erromerixaren ordua izango da, Arrabots taldearekin. Eta horri Larrain-dantzak jarraituko detsa: 19.00etan Untzagan eta, handik ordubetera, Klub Deportibuaren parrain dantzan egingo dana, kasu bixetan jende guztiari zabaldua.



Antolatzaillak egun horietan jendia basarritarrez jaztera animatzen dabe. / FERNANDO RETOLAZA


**Domekan ez da izango dantzan egingo ez dabenik**

Eguerdixan, Urkizun batzen hasiko diran unetik, dantza girua nagusittuko da herrixan. Ezpalak jaialdiko talde guztiak, gaiteruak eta joaldunak, Eibarko Musika Eskolako eta

**eman botoa**


**bildu**

## Zer begittantzen jatzu hauteskudietan bozkatzia derrigortzia?



**MARI CARMEN BILBAO**  
61 urte  
aurrejubilaua

Txarto begittantzen jata hauteskudietan bozkatzera derrigortzia. Bakotxak beran iritzixa eta pentsatzeko eria daka. Ez dabena bozkatzia nahi ez daka zertan bozkatu. Bozkatzeko aukeria dakan moduan, berak ez bozkatzeko aukeria izan biharko zeban.



**BENITA RAZKIN**  
79 urte  
etxeoandria

Ez dot pentsatzen hauteskudietan bozkatzia derrigorrezkua izan biharko leukienik. Bakotxak bere pentsatzeko modua daka eta holan islatu biharko litzake bozkatzeko edo ez bozkatzeko orduan be.

**AGUSTIN ELORZA**  
56 urte  
mekanikua

Debekatzia debekatu. Ez dot pentsatzen bozkatzia derrigorrezkua izan biharko leukienik, ezin da hortara bihartu. Halanda be, begittantzen jata jendia bozkatzera juan bihar dala hauteskudietan, izan be, sasoi luzia egon gihan bozkatu eziñik eta oiñ bada-kagu aukeria.



**IKER ETXEBERRIA**  
43 urte  
delineantia

Ez dot bape ondo ikusten hauteskudietan botua emotera bihartzia. Txarto daguala pentsatzen dot, bakotxak eskubidia dakalako bozkatzeko edo ez bozkatzeko, iñork ezer egittera bihartu barik.



## ARTOLA jatetxea

### ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Asteleheneretik  
barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
**15 €**

*Paletilla iberikoa  
Etxeko foie-a  
Bakailao-carpaccioa  
Legatza saltsan almejekin  
Solomilloa plantxan edo  
Ahate confit-a  
Degustazio postrea edo  
Gazta moussea edo  
Limoi sorbetea cavarekin*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

**25 € + BEZ**

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilburiarria 20 - beheko, eskuna

**M FUNERARIA MUGICA**

**Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba**  
**Tanatorio eta Errausketa laboa**  
Egokibetan (Signo poligonoan)  
Partikular: mutua eta desaguri emeei zerbitzuak  
Korako - Eskelak - Urteurrenko eskelak  
Euskal Herri osoan ospitaleetan hartzen ditugu  
Nazio eta Nazioarteko irazkideak

**Mugica Ehorzketa**  
Ehorzketa laboa

**TELEFONOA (24 ORDU)**  
**943 201 951**



TEEN-  
AJEA



“Aukera izugarria da eta ahalik eta ondoen aprobetxatzen saiatuko naiz”. 17 urteko neska honek duen poza handia da eta ez da gutxiagorako. Aldatzeko ikasleak Francisco de Vitoriak ematen dituen ‘Becas Europa’ izeneko beka jaso du eta, ondorioz, Europan zehar bidaiatu ahal izango du uztailean.

**BEATRIZ ALVAREZ, “Becas Europa”:**  
**“Zorionekoa naiz beka lortu izanagatik”**

**- Espainia osoko 3.000 ikasle-  
ren artean 50 bekadun izen-  
datu ditu Francisco de Vitoria  
unibertsitateak, eta horietari-  
ko bat zu zara. Zer sentitzen  
duzu horren aurrean?**

Ikastetxean beka hauek lortzeko aukera luzatu zigutenean ezinezkotzat jo nuen beka lortzea. Aldatzeko 3 ikasle izan ginen hautatuak hasiera batean eta pausoz pauso aurrera egin dut. Bekaduna nintzela esateko deitu zidatenean txantxetan ez aritzeko esan nien. Amari malkoak irten zitzaizkion. Pentsa. Ikastetxeari asko eskertu behar diot, eurek eman baitzidaten aukera. Ikastea gaitza da, etxean denbora asko geratu behar baitzara lanean.

**- Zertan datza beka?**

Jose Ortega y Gasseten ‘Misión de la Universidad’ izeneko saioan oinarritutako bidaia egingo dugu. Europako hainbat unibertsitate bisitatuko ditugu (Francisco de Vitoria, Alcalá de Henaresekoa, Heidelbergekoa Alemanian, Boloniakoa eta Oxfordekoa), euren historia eza-  
gutuz, hitzaldietan parte-hartuz eta ekintza kulturalak eginez.

Aurretik, gainera, finalistak Madrilen izan ginen asteburu batean eta hitzaldiak egin genituen, jinkana (talde-lana sustatzeko), Santander Bankuaren hiri-finantzieroa bisitatu genuen, Emilio Botinekin batzarra izan genuen eta bakoitzari Santanderren 5 akzio oparitu zizkigun.

**- Prozesu luzea jarraitu duzu beka lortzeko.**

Lehenik ikastetxeko 3 aukeratu gintuzten, ondoren formulario bitxi bat bete ostean Donostian elkarrizketatu gintuzten eta, ondoren, Madrilen beste 206 finalistekin topaketa egin genuen. Benetan jende jakintsuarekin egin nuen topo han, naiz eta pertsona normalak izan. Maila hura ikusita, ez nuen pentsatzen beka lortuko nukeenik. Baina horrela izan da. Ez dakit zergatik eman didaten. Benetan zorionekoa naiz.

**- Noiz gozatuko duzu beka?**

Uztailaren 3tik 22ra egingo dugu bidaia. Aurretik, hala ere, selektibitateko azterketak egin beharko ditut. Ondoren, momentu bakoitza aprobetxatzen saiatuko naiz.

**San Andres  
Gozotegia**

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K


☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

## Gaztetan Udan 2011-rako matrikula zabalik

**K**daberria aurrera doa eta urteko sa-soirik beroena heltzeaz da gurera. Horrekin batera oporrak datoz herriko gazteenentzat eta, ondorioz, denbora librea. Aurreko urteetakoari jarraituz, Eibar-ko Udalak Gaztetan Udan 2011 ipiniko du martxan herriko gazteek uda sasoa ederto igarotzeko.

Gaztetan Udaneako programa 12 eta 16 urte bitartekoentzat dago zuzendua. Honen helburuak gazteen artean euskeraren erabilera areagotzea eta udan aisialdiko aukera desberdinak eskaintzea dira, eta baita euren zaletasunak jorrazteko aukerak ematea eta lagun berriak egiteko gunea eskaintzea.

Programaren barruan Urdaibaian akanpada egin eta piraguan ibiltzeko aukera ematen



dute. Uztailaren 11tik 15era egingo lirarteke hondartza eta mendiko ateraldi hauek eta bertan izena emateko 50 euro ordaindu beharko ditu pertsona bakoitzak (42 euro anai-arrebek). Izen ematea maiatzaren 23tik 27ra egingo da 18.00etatik 20.00etara Indianokua Gaztelekuan (Muzategi 3).

### Sanjuanetako kamisetak


Lehen Hezkuntzako eta DBHko gazteenentzat, gainera, Sanjuanetarako kamisetak margotzeko tailerra egingo dute ekainaren 4, 11 eta 18an goizez Indianokua Gaztelekuan. Izen-ematea maiatzaren 27tik 30era egingo da 18.00etatik 20.00etara gaztelekuan bertan. Ekimenean parte-hartzeko kuota, bestetik, 5 eurotkoa izango da.

## Skate eskola Urkizun

**P**atinak badatoz berriro ere Urkizuko parkera. Azken urteotan egin den bezala, BBK Skate Eskola Tourra iritsiko da Eibarre-ra bihar eta, horrela, skate gainean ibiltzeko eta ibiltzen ikasteko aukera egongo da. Aurten, gainera, modulu berriak aurkituko dituzte skaterrek.

Bizkaiko hainbat herritan egongo da BBK Skate Eskola Tour 2011 Eibarrez gain, eta bertan patinatzen erakutsiko diete horrela nahi izango duten gazte guztiei. Antolatzaileen berbetan, egun partehartzaile eta ikusgarria sortzea nahi da, eta horretarako patinatzaile profesional bik eta monitore espezializatu bik emango dituzte klaseak.

Skate eguna 11.00etan hasiko da Urkizun. Hortik aurrera eta hiru ordutan zehar 10 eta 16 urte bitarteko gazteentzat skate eskola egingo da patinatzaile profesional eta monitore espezializatuekin. Ondoren, 14.00etatik 16.00etara bakoitzak bere abilezia erakutsi ahal izango du, izan ere, bakoitzak patinaren gainean libre ibili ahal



izango da, beti monitoreen begiradapean. Eguna amaitzeko, 16.00etatik 18.00etara txapelketa eta jinkana skatera egingo dituzte. Horrela, lehiaketa egingo da eta opariak banatuko dira partehartzaile guztien artean skate eguna ahalik eta ondoen amaitzeko.

### DEBAKO NATUR ESKOLA

Inguruaren heziketa, aisialdi, denbora libre, abentura eta kirola

Naturaren ikaslea

## UDA GAZTE MULTIABENTURA

**Ur eta abentura jarduerak**  
Oso inguru natural eta seguritan.

Lehen mugatutako eta erreserbatutako eskaintza  
ordainez araberako gazteentzako dirua

**12tik 16 urte bitarteko gazteentzako dirua**  
**14tik 16 urte bitarteko gazteentzako dirua**

DEBANATURA - Orotzeta Kalea, 12. Deba (Orotzeta Kultur Etxea)  
Kontaktua: 943 19 13 72 edo 695 783 656 (gehigarriak ostialdian  
9:00etatik 13:30etara)  
e-mail: debanatura@reartmail.com  
www.debanatura.net / www.kaleakale.com

**1 DEBANO**  
12-14 urte bitarteko gazteentzako dirua

**DEBANO MULTIABENTURA UDALEKU**  
12-14 urte bitarteko gazteentzako dirua

Nere DEBAN

eskueldako 9-14 urte bitarteko gazteentzako dirua

Ordutegia: 10:00 - 13:30 h.  
Izen-emateak: ekainaren 10 arte

**2 DEBANO**  
15-16 urte bitarteko gazteentzako dirua

**DEBANO MULTIABENTURA UDALEKU**  
15-16 urte bitarteko gazteentzako dirua

Nere Urteak, Bostak Pirineotan

Kantelutik Pirineotara

12-16 urte bitarteko gazteentzako dirua

egonaldiak uztailean Pirineotan

Izen-emateak: maiatzaren 30 arte

## Eusko gudariak Antigua

**B**izitza osoan pultserak, ohialak eta zapiak saltzen ibili bazara, ehun metrotara pertsona bakoitza nongoa den jakiteko abilezia badaukazu. Lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen zara, ahora zerbait eraman eta umeak eskolara joateko egunero zerbait saldu behar duzu, eta turista bakoitza konkista bat da zuretzat. Altxor hori lortzeko egokia izaten da nongoa den jakitea, nolakoia izan daitekeen gehiago jakiteko, konfidantza sortzeko eta hartu-eman horretan zure produktua saltzeko.

Mariak inork baino hobeto daki hori. Oinez ibiltzen ikasi aurretik Antiguako kaleetan eskuz egindako lanak saltzen baitzebilien. Amaren bizkarrean zintzilikatuta, bizitza osoan zehar egingo zuen lana ikasi zuen. Antiguatik 10 bat kilometrorra dagoen herririka batean bizi izan da beti Maria, eta egunero oinez egiten du etxetik lanera duen bidea. Leku ederra bere 'bulegoa', Antiguako plaza nagusia Giza-Ondare izendatu baitzuen Unescok.

Zortzi bat urte zituenean, turista birekin egin zuen topo bere jaioterrian, San Juan del Obispon. Agua sumendiaren maldan dagoen herri honetan turistak egotea ez zen normala sasoi hartan, ezta orain ere, baina neska bi hauek Guatemala ondo ezagutzea nahi zuten. Euskaldunak ziren.

Berehala konfidantza hartu zuen euskaldun biekin Mariak. Kanpotarrak ikusten ohituta zegoen bera, baina ez zen normala bere herrian atzeritarrak aurkitzea, eta horrek neska biengana gehiago hurbiltzera bultzatu zuen. Orduak ematen zituzten berriketan hirurek eta munduaren alde bakoitzeko ohitura, kultura eta berbak elkartrukatu zituzten.

Euskaldun biek etxerako buelta egin zuten bidaia amaitzean eta, bitartean, Mariak bere bizitza jarraitu zuen Antigua. Amaren besapean negozioa ikasi zuen. Antiguak urteetan



Antigua eta Agua sumendia

# Guatemala

zehar izandako bilakaera bizi izan du. Hazi egin zen, ezkondu, eta seme-alaba bi izan zituen. Senarra hil zitzaion orain dela urte bi. Guatemalan oso hedatua dagoen gaixotasun batek eraman zuen: alkoholismoak.

Ez zuen eskola amaitu. Etxera dirua eraman behar zen eta familiak ezin zuen utzi esku bi lan egin barik. Berari gustatzen zitzaion, baina bizitzaz ikasi beharko zuen hazten zihoan heinean. Inglesa, frantsesa, alemaniera eta japoniera menderatzen ditu Mariak. Kalean ikasita, eskolarik gabe. Kalea izan

baita bere eskola. Ia 26 urte izan dira kalean, egunero, turista artean, eta benetan argia da bera. Ez dauka, beraz, turistekin elkar ez ulertzeko arazorik.


Pacaya sumenditik etorri berri harrapatu gintuen Mariak Antiguako parke nagusian. Paula eta biok erdi hilda geunden. Indarrean dagoen sumendia da Pacaya. Iazko maiatzean bota zuen sua azkenengo aldiz, eta bertara igotzea galdu ezineko aukera zen. Ordu bi gora eta ordu bi beheara, nekatuta iritsi ginen Antiguara (mendira igotzeko ohitura falta) eta parkeko jarleku batean jarri ginen.

Gaszte koadrilak, saltzaileak eta, horien artean, Maria. Gure alboan eseri zen, nahiz eta hurbiltzen ari zela buruarekin ezetz egin (Mexiko eta Guatemalan denbora dezente egin ostean eta, momentu horretan, hain nekatuta izanda, kokoteraino zaude saltzaileez. Ni behintzat). Lehen momentuan ikusi zuen ezer erosteko asmorik ez geneukala, baina ez zion ardura, berriketarako gogoia zeukan. Munduko beste txokoetatik Antigua bisitatzen zuten horien kontuak entzun nahi zituen eta bereak igorri. Hartu-eman. Hartu-eman aberasgarria.

Bere bizitzaren gora-beherak kontatu zizkigun. Hunkigarria. Orduan, ea nongoak ginen galdetu zigun. "Euskaldunak", guk. Begiek irribarre bat margotu zuten bere aurpegian. Ahoa ireki eta 'Eusko gudariak' abestu zigun. Oso-osorik. Hasieratik amaierara. Orduan geu geratu ginen aho zabalik.



Tikal mayen inperioaren sorgunea.



San Pedro La Laguna.

*etxe apainketa*



*gehigarria*

# Argitasuna gelaz gela

**E**gongela: handia denez, oso ohikoa izan da sabaian sartutako argiak erabiltzea, ilada bi eginda. Baina ez da hori modurik onena. Honezkerok jarrita badituzu, ez daitezela beti guztiak batera piztu, beharren arabera baino eta euren intentsitatea jaitsi eta igotzeko aukera ere oso interesgarria da. Fokoa

mugitzekoa bada, hormak argitzearekin, gelak handiago emango du. Egongela handiak dira, liburutegiak ondo argitzea ezinbestekoa izaten da, berdin telebista eta altzari osagarriren baten lanparatxoren bat ipini.

Jangela: mahai gainean dagoen argia beti egon beharko da gure burutik gora, hau da, behin jarrita, ez dugu

bonbila ikusi behar, argia ailegatu behar da, baina ez zuzenean. Lanpara edo bonbila hori mahaiaren erdian egon beharko da. Zuloa ez baldin badago ondo eginda, lanpara aukeratzekoan eduki hori kontuan eta mugikorra izan dadila.

Logela: egongelan gertatzen den moduan, fokoak izanez gero, hormak euren argiztatu, logelak handiago emango du eta. Ohean irakurtzeko ohitura izan edo ez, alboan lanparatxoak izateak argitasun berezia ematen du. Logelan sartzerakoan bai fokoak, bai lanparatxoak pizteko botoia izatea ezinbestekoa da.

Sukaldea: argitasuna bereziki zaindu behar dugu sukaldean. Argitasun handiko lekua izan beharko da, kanpotik argi asko ez bada sartzen gehienbat. Lanerako guneak oso ondo argizatuta egon beharko dira eta, horregatik, gaur eguneko sukaldeetako altzariek euren argiztapen propioa izaten dute. Suak eta harraskak argiztapen luze propioa eduki behar dute. Jangela sukalde barruan badago, horrek bere argiztapen propioa izango du.



**ESTUDIOS ARRILLAGA**

PROIEKTUAK  
ERREFORMAK

LOKALAK  
ETXEBIZITZAK



Arragueta, 12 EIBAR  
Tel. 943 20 06 98

ELGOIBAR Errosario, 15  
Tel. 943 74 40 19

**ulmar**  
S.L.



construcciones  
metálicas

Txonta, 30 - 1.a  
eta behea  
Tel. 943 12 13 67  
Faxa. 943 12 01 50

**ERAKUSKETA:**  
Urkizu, 26 (EIBAR)  
Tel 943 12 74 01

**Eraikuntza metalikoak**  
**Aluminiozko eta PVCko Aroztegia**







**FRAN URKIDI**


**Erakusketa berria**

Eitua Polg. Ind., 68 • Berriz  
Tfnoa: 94 682 73 25

Bidebarrieta, 27  
Tfnoak: 943 20 01 51 - 943 20 87 32  
Faxa: 943 25 40 31

Julian Etxeberria, 17  
Tfnoa/Faxa: 943 12 18 66

www.franurkidi.com  
urkidi@franurkidi.com





Edertasunak ez duelako zertan garesti izan



**Proiektuak - Erreformak - Dekorazioa - Altzariak**



**100 m<sup>2</sup>ko autozerbitzua**



**Zure LOW COST  
dekorazio denda**

**Altzariak.**

**Menajea.**

**Bainurako osagarriak.**

**Ehungintza.**

**Argiztapena.**

**Opari pertsonalak.**

**Osagarriak.**

# Profesionalak daude dekorazioan laguntzeko



txean obra egin behar dugula erabaki bezain pronto, badakigu hainbat buruhauste eta arazo izango ditugula, dirua gastatu beharko dugula eta denbora nahi baino gehiago beharko dugula. Inguruko lagun eta senideekin hitz egingo dugu kontu horretaz eta norbaitek esango digu: "Nik dekoratzailea erabili nuen"; eta orduan etorriko zaigu galdera burua: dekoratzailea bai edo ez?

Dekoratzailea profesionala da eta lan hori egiteagatik kobratu egingo digu, jakina, baina era berean guk behar duguna, hori lortzeko jarraitu beharreko bidea eta azkenean gure obrak izango duen itxura inork baino hobetok ikusiko du.

Hori bai, profesionala kontratatuko dugula behin erabakita, badago zer kontuan hartu. Hainbat profesional dago herrian eta ziur gure inguruan badagoela horrekin lan egin duenik. Galdetu ingurukoei, orain arteko lanak zer nolakoak izan diren jakiteko. Aukeran, dekoratzaile horrek egindako lanen bat ikusteko aukera izanez gero, aprobeztatu.



Dekoratzaileak ahalik eta informazio osotuena beharko du. Denboratxoa eskaini beharko diozu berba egin eta zure gustoko diren gauzak ezagutzera emateko.

Aurkezten dizun proiektua ahalik eta zehatzena izan dadila, jarraitu beharreko pausu danak azaldu ditzala, kalitateak eta itxurak.

Denbora oso garrantzitsua izango da, obra batek beti irauten du guk nahi baino gehiago, beraz, hitz egin lehenbaiten horri buruz eta markatu dekoratzailearen eta bion artean zenbat denbora beharko duzun. Horrekin batera, prezioa hitzartu, baita ordainketa epeak ere. Gauzak zehazki jakinez gero, arazorik ez da izango.



[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)


**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

eraikuntzak

erreformak

igeltseritza

Tfnoa. 943 120108  
Azitain Industrialdea, 3 - H



**SUKALDE ALTZARIAK  
AROSZTEGIA**

Calbeton 4, behea

Tel. 943 20 29 27 / 943 12 01 92



# aome


proiektuak  
erreformak  
dekorazioa  
altzariak  
sukaldeak

San Juan 9, Behea  
T: 605 773 720 Fax: 943 12 18 18  
www.aome.es - mikel@aome.es



# Baglietto

Parketak  
Alfonbrak  
Osagarriak  
Pinturak



**Errebal, 21**  
Tel. / Faxe  
943 20 19 22  
Tel.  
943 20 22 31



**BENICOBA**


**ETXEKO TRESNAK – SUKALDEKO ALTZARIAK**

Juan Gisasola, 12-14 benicoba@terra.es

Tfnoak. 943 20 39 02 943 70 13 95



**Diproca Ateen erakusketa**



**Etxe-erreformatan 30 urtetik gorako esperientzia.**

**Ateak, armairuak, oholtzak, ...**

**Salmenta puntu ugari**

**inguruko zonaldean.**

**Diproca** bizilekuetan adituak  
**ATEAK**

**Isasi, 17 -behea- (Eibar)**

**Tfnoa. 943 10 83 00 Faxe. 943 10 83 02**

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
**IGELTSERITZA**

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxe: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com jvega@jorgevega.es

PROIEKTUAK ERREFORMAK BARNI DEKORAZIOA Arraquetta, 7 943 127 196

# attrezzo



# EPOCA-GORO

San Juan kalea, 5 943 700 216  
[www.epocasukaldeak.com](http://www.epocasukaldeak.com)



SUKALDEAK - BAINUGELAK - PROIEKTUAK - ERREFORMAK - DISEINUA



# Lanerako lekua etxean

**A** autonomoa izan barik be, azken urteetan oso ohikoa da etxera lana eramaten dugunerako gure txoko propioa eukitzea ezinbestekoa bihurtu da. Orde-nagailuek gero eta garrantzi gehiago dute gaur egun, eramangarriak dira eta edozein lekutan erabili ditzakegu, wifi-ari esker; baina aldaketa guzti hauek gure etxeetan bulegoaren txokoa sortzera bultzatu dute.

Antzinako mahai handia hartu, garbitu (lixibaz bustita adibidez) eta mahai berezia izango dugu. Antzinako etxeko ateetako bat hartu, altzairuko lau hanka erosi eta birziklatutako mahai izango dugu. Horrek lan larregi duela pentsatuz gero, gaur egun merkatuan era guztietako mahaiak ditugu. Hori bai, badago behar den modukoa izan behar den erosketa: aulkia. Ondo begiratu, gure bizkarrerako egokiena izan dadila, eta probatu erosi aurretik.

Mahaia eta aulkia erosita, gauzak gordetzeko apalak (birziklatuak edo berriak) dugun lekuaren arabera izan beharko dira. Eta argitasuna zain-



du beharko dugu. Kanpotik datorren argia erabili ahal den guztia, baina argiztapen artifiziala ondo begiratu; ordenagailuak behar duen argitasuna asko da. Eta horri laguntzeko hormak ez margotu kolore gogorrek, izan daitezela kolore argiak, ez zuria derrigorrez, baina ez ditzala gure begiak nekatu.

Etxean lana egitea tokatzen zaigu, ados, egin dezagun eroso, behintzat. Beraz, gure beharren arabera lekua sortuko dugu, izan ere, bakoitzaren lanerako beharrak oso desberdinak dira eta horren arabera erosiko dugu mahai handiagoa, artxiborako altzari txikia edo handia.

F. Calbetón, 16

# ROCA

943 20 80 06

A photograph of a bedroom with a bed, a lamp, and a window with curtains.

zure etxea dekoratzeko aholkulariak

KOLEGIATU ZKIA: 58001

# mokka

ERREFORMAK  
DEKORAZIOA  
PROIEKTUAK  
SUKALDEAK  
ALTZARIAK

A photograph of two modern chairs with black seats and metal frames.

San Agurtia 5.  
943 530637



# EKAIN: Munduko kolorea

APALATEGI AUZOA, 2

Pintura eta Dekorazioa  
GRUPORRALMM, S.L.



Tel. 943 821 325  
Faxa. 943 821 326  
ekain2000@terra.es



 PINTURA ZORUAK PAPER PINTATUAK ALFONBRAK  
IZARAK ETA EDREDOIAK BURDINDEGIA



ERREFORMAK  
PROIEKTUAK  
SUKALDEAK

BAINUAK  
ALTZARIAK  
DEKORAZIOA



AL-BIDE  
GREMIOEN KOORDINAKETA

[www.casanella.com](http://www.casanella.com)

Juan Gisasola, 16 - behea

Tel. 943 20 04 43

Faxa. 943 20 14 11

# CASANELLA



# Zaharra moderno

**A**mamaren altzariak gustoko dituzu, baina altzari modernoak ere gustoko dituzu. Antzina ezinezkoa zen horrelako estilo bi nahastea, baina gaur egun ez dago arazorik. Hori bai, amamaren altzariak bereziak badira, kontuan izan lekua beharko dutela, erakusteko aprobe-txatuko dituzu. Hormetako koloreak

ezin izango dira gogorrak izan, horma bigarren mailan gelditu behar dira. Bessaulkietan koloreak erabiltzea ondo egongo da eta forma modernoak izanez gero, antzinako altzaria ezin hobeto konbinatuko duzu. XVIII. eta XIX. mendeko altzariak modan daude azken aldian, baina egungo modernitate ezin ahaztu.

## 40. hamarkadakoak

Altzari eta diseinu munduan XX. mendeko 40. eta 50. hamarkadak sormen handikoak izan ziren. Le Corbusier moduko diseinatzaileek hantaz gora jarri zuten altzarien mundua eta oraindik ere, batek baino gehiagok horrelako diseinuak ikusten dituenean, gaur egun sortutakoak direla pentsatzen du. Izen handiko lanak izaten dira eta garestiak gehienetan. Inbertsio ezinhobea izango da, baina horrenbesteko aurreronturik ez badugu, antzerako diseinuak eta prezio onean lortuko ditugu leku baten baino gehiagotan. Narrua, altzaria eta beira erabiltzeko modu berria sortu zen hamarkada haietan, argitasun handiko lanak izaten dira eta bogan daude. Eta Louis XIV estilokoak nahastea ere onartzen da gaur egun. Ondo nahastuta, dana onartzen da gaur egun. Hori bai, etxean behar den lekua eman beharko zaio, jendeak behar den moduan ikusi behar ditu, altzariak berak izango du garrantzia eta beste guztia bigarren mailan izango da.



erreformak  
proiektuak  
etxeko eta bulegoko  
altzariak  
osagarriak  
opariak

CASAMANIA  
DEKORAZIOA



Toribio Etxebarria, 14

Tfnoa. 943 20 42 59



# IFAR

sukaldeak

Agencia MUEBLES DE COCINA Y BAÑO **FORMA** COCINAS

banatzailea

Ifar kale, 6 - behea

Tel. eta Faxa:

**943 206 339**



San Agustin, 2

Tfnoa eta Faxa. **943 203762**

## F. PASCUAL

**ARROZTEGIA - EBANISTERIA**

SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK



## VIRGINIA PASCUAL

Arane, 6

tel. 943 20 61 64 / 943 17 19 73


20600 EIBAR

Zubiaurre, 36-38 behea

tel. 943 17 68 28

48260 Ermua

[www.cocinaspascual.com](http://www.cocinaspascual.com)



### ARMAIRU ENPOTRATUAK

- Armairu enpotratuak zur mota guztietan
- Diseinu pertsonalizatua
- Erosotasuna eta espazioa
- Zure dekoraziora egokitutako soluzioak
- Aukera zabala zurezko akaberetan, eta baita kolore berezietan eta lakatuetan.

### SUKALDE ALTZARIAK

- Fabrikatzaileak gara. Zure neurrirako sukalde altzariak egiten ditugu.
- Esperientzia handiena.
- Kalitate bermerik gehiena.
- Gure konpromisoa zurekin prezio onenean.
- Fabrikatzaileak izanda, gure prezioak merkatuko lehiakorrenak dira.
- 30 urtetik gora material eta merkatuko zerbitzu profesional onenak eskainiz.



# Sukalde txiki eroso

**L**ogela handiak, egongela handiak... etxeak diseinatzeko modua aldatu egin da, aspaldiko sukaldeek indarra galdu dute eta gero eta txikiagoa da eskaintzen zaien lekua. Hori dela eta, batek baino gehiagok arazoak ditu sukalde diseinatzeko orduan.

Sukaldeak behar duen lekua izan behar du, mila gauza, bata bestearen gainean ez da eroso, ezta polita ere. Goikaldean leku gehiago izaten dugu eta ate irristailuekin itxitako armairuak oso erosoak dira. Hori bai, goikaldean izanda, eskailera txikia edo aulkitxo bat eskura izan beharko dugu.

Sukaldatzeko lekua izatea ezinbestekoa da, sukalde handietan irlak jartzea modan dago, baina leku gutxi duzularik ez albo batera laga ideia. Hitz egin sukaldako dendako arduradunarekin, irla bat sartzeko aukera izanez gero, ideia ezinhobeia izango da-eta. Hormak aprobetxatu eta gauzak esekitzeko guneak jarri, sukaldatzeko tresnak su alboan izateko aukera ona da eta armairuak eta tiradera-altzariak bestelako gauzetarako aprobetxatuko dugu.



Amaitzeko, argiztapena. Ez erabili kolore gogorrik, eta argiztapenak hormetara zuzendu, horrek sukalde handiago egingo du. Hori bai, ez ahaztu lanerako guneak ondo argizatzea eta altzarietan fokoak jarri, bai suaren gainean, bai harraskaren gainean.

Gaur egun merkatuan asko dira dauden aukerak, sukalde dendetan aukera guzti horiek ezagutzen dituzte, gaur eguneko material, kolore eta abarrak eskainiko dizkizute, baina zure beharren arabera beti. Zure gustoen arabera egin, baina onartu laguntasun hori ere.



**Toldoak, pertsianak eta leihoak**



Erakundeak:

Ernaia (943-170904)

Durango (94-530208)

EIBAR (943-120333)

Talerra:

Ernaia (943-176601)

dekorazioa  
oihalak  
alfonbrak  
paperak  
panelak


**JAINAGA**  
Birjiñape, 1 943 70 21 99



JoserAuto eta Centro Gallego izan ziren Kiroljokoa Sariaren lehen edizioan.

## Kiroljokoa I. Saria Ermura joan zen penaltietan

**GOLIK GABE AMAITU ZEN JOSERAUTO EIBARKO FOBALL-ZALETUEN LIGAKO ETA CENTRO GALLEGO ERMUKO KONPETIZIO BEREKO TXAPELDUNEN ARTEKO** norgehiagoka eta, penaltietan, 5-3 nagusitu zen Ermuko taldea, horrela bereganatuz Kiroljokoa I. Saria. Asteburuan, bestalde, Kopa txapelketa hasiko da, final zortzirenekin: bihar C. Dental - JoserAuto, Txoko - Areto eta Esmorga - Durango jokatuko dira eta etzi Caserío - Lanús, Alkideba - Somos Sporting eta Azkena Calton - Teknografik.



## Pampo korrikalaria gogoratuz Aixolan

**AURREKO ASTEKO EGUE-NEAN LAGUNARTEKO MARRATOIA EGIN ZEN AIXOLAKO URTEGIAREN INGU-RUAN**, orain urtebete hildako Felix Ormaetxea "Pampo"ren omenez. Bere izena eramango

duen maratoiaren lehenengo edizioa izan zen eta 19 lagun izan ziren parte hartzen, beste batzuk itzulia oinez egiten zuten bitartean. Ondoren, 40 lagun inguruko taldeak Iruki sagardotegian bazkaldtu zuten.

## Altuna eta Ziaran nabarmendu ziren Bermeoko esprint triatloian


**OHIKOA BIHURTU DENEZ, ANE ZIARAN 23 URTETIK AZPIKO ONENA IZAN ZEN BERMEON** eta, baita, Ipar Kutxa Bilboko VII. Duetloian, Paul Secoren oroimenez jokatutakoan. Bermeon, bestalde, Alejandro Altuna Eibar Triatloi Taldeko taldekidea bigarren postuan sailkatu zen 2 mailako beterranoen artean. Bermeoko irabazleak Adrian Ruano eta Ainhoa Murua izan ziren; Bilbon, bestalde, Laurent Galinier eta Radka Vodickova.

## Kadete mailako gimnasten brontzezko domina Gipuzkoko txapelketan

**IPURUA KLUBEKO KADETE MAILAKO TALDEAK BRONTZEZKO DOMINA ESKURATU ZUEN ZAPATUAN IBARRAN** jokatutako Gipuzkoako Eskolarteko A txapelketan, Grazi Arregi, Nahia Bilbao, Olaia Golzarri eta Ane San Martinekin; senior mailako taldea, bestalde, 4. postuan sailkatu zen Hernanin jokatutako Euskadiko txapelketan. Bihar alebinak eta infantilak B mailako Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan izango dira: alebinetako taldea Arrate Barroja, Miren Bastida, Ane Dávi-

la, Alaia Elgeta, Ainhoa Muñoz eta Enara Zufiriak osatuko dute (Bastida, Baroja eta Zufiria banaka ere jardungo dute) eta, infantiletan, Nerea Deza izango da Ipuruako ordezkaria.

Etzi, domekan, bestalde, Ipurua GR Gimnasten V. Topaketan bigarren jardunaldia jokatuko da, oraingoan Soraluzen, joan zen asteburuan Mallabian egin eta gero. Ehun neska inguruk hartzen du parte topaketa horietan eta hurrengo asteburuetan Markinan eta Eibarren ere izango dira.



Ipurua Klubeko kadeteen mailako taldea eta prestatzailea, eskuratutako dominekin.

## Pilota partiduak gaur Astelenan eta bihar Kiroldegan

**BIHAR PARTIDU BI JOKATUKO DIRA KATEDRALEAN, 20.15-ETAN HASIKO DEN JAIALDIAN.** Biak ere lau eta erdiaren barruan erabakiko dira: lehenengoan Zubizarretak Arrasateko Orejarekin neurtuko ditu indarrak eta, jarraian, Unamunzagak Eskoriatzako Zubizarreta izango du aurrez aurre (azken bi hauek sailkatuta daude, partidurik galdu gabe, eta multzoko lidergoa izango dute jokoan). Etzi, zapatua, 16.30etatik aurrera, hiru norgehiagoka jokatuko dira Ipurua kiroldegian: hasteko, Zorion-Narbaiza Klub Deportiboko in-

fantil mailako bikoteak Bergarako izango dute aurkari eta, ondoren, Agirresarobe kadetek Bergarako Jorgeren kontra jardungo du eta, amaitzeko, Andonegi jubenilak Donostiako Millánen aurka. Azken partidurik biak lau eta erdiaren barruan jokatuko dira.



## Urrezko bost domina Deportiboko atletentzat Gipuzkoako txapelketan

### KLUB DEPORTIBOKO HAMALAU NESKA-MUTIL IZAN ZIREN ZAPATUAN TOLOSAN ETA DOMEKAN DONOSTIAN

Gipuzkoako atletismo txapelketako lehen jardunaldian. Ainhoa Aspiazu, Ibrahim El Mousaoui, Martin Vouilloz eta Pello Osoro igo ziren podiumaren gorenera eta, Azpiazuren kasuan, jabalina 35 metrotik haratago bota zuenez, Sanjuantetan Castellónen jokatu diren Espainiako txapelketan parte

hartzeko txartela eskuratu zuen. Jon Cañedok, Nestor Gisasolak eta Tomas Vouillozek 3. postua eskuratu zuten lasterketa laburretan eta Tomasek postu bera lortu zuen altuera jauzian. Pedro Agirregomez-korta "Petrus" beterranoa, bestalde, disko jaurtiketan Espainiako markatik metro bakarrera gelditu zen. Euren entrenamenduetan laguntzeaz gain, adibide ederra Petrusek eskaintzen diena gazteenei.



Ibrahim, Ainhoa eta Nestor Gipuzkoakoetan lortutako dominekin.

## Kalamuako judokak bikain Legazpin

### LEGAZPIKO BIKUÑA KIROL-DEGIAN JOKATUTAKO BENJAMIN ETA ALEBIN MAILETAKO TORNEOAN

Arrasate, Zumaia, Azpeitia, Hondarribia, Soraluze, Zumarraga, Ondarrosa eta Legazpiko 140 bat judokak hartu zuten parte, gure herriko Kalamuakoekin batera. Eibarko ordezkarien artean, Iker Martínezek alebinetan eta Asier Nuñezek benjaminetan

urrezko domina banaz jabetu ziren eta Roberto Adriánek eta Unai Soraluzek zilarrezko bana lortu zuten.

Domekan, bestalde, alebin mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen Hernanin eta hor Iker Martínezek brontzezko domina lortu zuen, saio bikaina egin eta gero. Asteburu honetan jiu-jitsu txapelketa jokatu da Madrilan.



## Asola-Berriko Arkaitz Rodríguez gero eta sendoago lidergoan

### ASOLA-BERRIKO ORDEZKARIEK NAHIKO KONTROL-PEAN DUTE GIPUZKOAKO 42. HIRU-TXIRLO TXAPELKETA,

batez ere lidergoari dago-kionez, hor Arkaitz Rodríguez baita nagusi, bost txirloko aldearekin. Aurreko zapatuan San Andresen jokatuako txapelketaren zortzigarren jardunaldian, 81 parte-hartzaile izan ziren eta Bittor Ugarteburu eibartarra eta Elgetako Sabin Arriaga nagusitu ziren, bost txirlo etzanda. Horko emaitze-kin, Arkaitzek 27 txirlo bota ditu dagoeneko eta 22rekin jarraitzen diote Gaizka Unamunza-




ga eta Bittor Astigarraga taldekideek eta San Migueleko Imanol Osorok; txirlo bat gutxiago dute Bittor Ugarteburuk eta San Migueleko Xabier Loiolak. Bihar jokatu da hurrengo jardunaldia, Azkoitiko Floreagako bolatokian, 17.00etan hasita.



## Debabarrena Gipuzkoako finalera

### KADETE MAILAKO DEBABARRENA ARETO-FOBALLEKO TALDEAK NOTA ALTUAREKIN LORTU ZUEN

Gipuzkoako Ligaren finala jokatzeko txartela, Zarautzi 7-2 irabaziz. Denboraldi bikaina egin dute eta azken partiduak dituzten ahalmenak eta egiten duten jokoa berretsi zituzten. Aurkaria finalean Anoeta izango da.



## Eskubaloilari gazteak selekziora

ARRATE ESKUBALOI TALDEAREN KADETE MAILAKO Mikel Guerra, Sergio García, Ander Anabitarte eta Ruben López Gipuzkoako selekzioak egindako azken deialdian izan dira ekainaren 4an selekzioen arteko Euskadiko txapelketa jokatzeko.



Eibarko jokalariek Sabadell-en aurkako partidua prestatzen, herenegun. / ANDER SALEGI

## Sabadell izango da Eibar FT-ren aurkaria igoera kanporaketan

**EIBAR FOBALL TALDEAK DOMEKAN JOKATUKO DU, 19.30-ETATIK AURRERA, LA NOVA CREU ALTA-N 2.** A mailara igotzeko kanporaketaren lehenengo partidua. Ligaren amaieran kirioak dantzan izan zituzten Manixen gidatzen duen taldearen zaletuek eta modu berezian, azken minutuan eta penaltiz, irabaztea lortu zuen Eibarrek. Guijuelok zail ipini zizkion gauzak talde gorri-urdinari eta irabazten hasi zen; azkeneko porrotarekin, gainera, mailari eustea lortu zuten Salamancakoek, beste emaitzei esker, eta horrela poza nagusitu zen Ipuruan.

Hurrengo asteburuan Ipuruan jokatuko den itzulerako partidurako, Eibar KE-ko bazkideek sarrera jaso beharko dute aurretik klubaren bulegoetan hilaren 26a baino lehen (10.00-etatik 13.00ak arte eta 17.00-etatik 20.00ak arte). Bere sarrerarekin, bazkideek beste bat hartu ahal izango dute, 10 eurotan, eta sarrerekin pañuelo bat oparituko zaie. Barixakutik, hilaren 27tik aurrera, sarrerak salgai ipiniko dira bazkide ez direnentzat eta txarteldegiak honako ordutegia izango du: 27an, 17.00etatik 20.00etara eta 28an eta 29an, 11.00etatik 13.00era eta partidu aurretik.

## Bihurri abentura bila Alex Txikon-ekin


**EIBARKO AIZKOLARIAK ETA LEMOAKO AIZKOLARI-MENDIZALEAK 7.000 KILOMETRO EGINGO DITUZTE** monobolumen batean eta hainbat erakustaldi eskainiko dituzte Austrian, Iranen eta Pakistanen. Hilaren amaieran abiatuko dira ekainaren erdi aldera Pakistanera iristeko asmoz: guztira, bost lagun joango dira, tartean Xabier Erro mendizalea eta kamara bi.



San Isidroren ere erakustaldi bikaina eskaini zuen Bihurrik; hori bai, bazkari ederri ekin aurretik. / MAIALEN BELAUSTEGI.

## Urkotronik-ek beste lau urtetan babestuko du Urvat

**BESTE LAU DENBORALDIRAKO LUZATU DUTE BABES-KONTRATUA URKOTRONIK-EK ETA URBAT- EK.** Modu horretan, gure herriko igeriketa eta waterpolo garatzen jarraitu ahal izango du. Aldi berean, entrenamendu programa berezia ipintzeko asmoa dute Ander Romarate igerilariarekin, ikusita azken honek Londreseko datorren urteko Olinpiadetara joateko duen aukera.



Espazioa aprobetxatzen adituak  
**GAZTE LOGELETAN**

**ALTZARI ERAKUSKETA eta SALMENTA**

Ibarkurutze, 5

Telefonoa: 943 20 37 15

**HEZIKETA ZIKLOAK TXANDAKARO INGENIARITZA**

**Ate IREKIAK:** Maiatzak 28, 11:00  
ZATUZ ETA EZAGUTU GAITZAZU!

**ingeniaritza Fmh**  
Ikasi eta lan... zure Aranda / aurrezkituta ekainak 17

**IMH**  
HEZIKETA ZIKLOAK aurrezkituta ekainak 1-10 martxoak: uztaileak 4-8

Tel: 943 74 40 32 | www.fmh.es

**Idea bat izaten dute buruan. Amets bat. Euren kasuan, hala ere, ideia hori ez da irudimenean soilik geratzen. Garatu egiten dute, landu, forma eman eta, azkenik, gauzatu. Ekintzaileak dira eta maiatzaren 26an euren eguna ospatuko dute.**

**Fran Murillo eta Oscar Imediok Ikusten Ikusentzunezko Zerbitzuak enpresa sortu zuten KTB-ren itxieraren ostean. Debegesa eta Bic Berrilanen laguntzarekin ikusentzunezkoetan lanean dihardute eta horren adibide da [eibartv.com](http://eibartv.com) webgunea.**



Murillo eta Imedio gazteengana bideratzen dira batez ere, internet gehien erabiltzen dutelako.

## FRAN MURILLO & OSCAR IMEDIO (IKUSTEN)

### “Ikusentzunezkoetan zegoen hutsunea bete nahi genuen”

**- Nolako izan zen Ikusten- en sorrera prozesua?**

KTB-ren itxieraren ostean ikusi genuen Eibarren hutsunea ikusentzunezkoen arloan. Horrela, biok gaiaren gainean ezagutza geneukanez, Ikusten sortu genuen ikusentzunezko eta publizitate zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin. Horrez gain, gure webgunean Eibarko berriak eskegiten ditugu. 2009ko uztailean itxi zen KTB eta 2010eko martxoan ekin genion proiektu honi.

**- Zertan diharduzue zehazki?**

Gehienbat besteentzat bideoak egiten ditugu (bideo instituzionalak, produktuenak...) eta webgunea eguneratuta mantentzen dugu.

**- Zuen produktu ikusgarriena 'eibartv' da.**

Bai, duda barik. Gainera, gaur egun sare sozialen bitartez bere hedapena egitea errazagoa da eta hortaz baliatu nahi izan dugu. Facebook eta Twitterren muturra sartzea nahi

izan dugu horrela. Bestetik, KTBren itxierarekin ikusi genuen Eibarren bazeudela irratia, egunkariak eta aldizkariak, baina ezer ikusentzunezkoen gainean. Interneten aldeko apustua egin dugu eta Youtube pare bat bideo egon arren, hauek ez daukate ordenarik, beraz, webgunea sortu dugu munduarentzat Eibarren erakusleho bezala.

**- Zein abantail eta zein desabantail ikusten diozue zuen produktua interneten soilik eskaintzeari?**

Gaur egun interneten aldeko apustua egitea abantaila da berez. Epe ertainean komunikabide mota nagusia izango da. Hori bai, informazioa eta aukerak dibertsifikatu egiten dituzte. Jabetzen gara orain momentuan publiko gaztearengana bideratzen garela gehien bat, internet errezen erabiltzen dutenak direlako, baina denbora gure alde daukagu zentzu horretan.

**Maria Rodriguezek, bere aldetik, Argentinan ikasitakoa bere jaioterrira ekarri nahi izan zuen. Musikoterapia zentrua dauka Isasi kalean: Musikum. Hiru urte daramatza bertan musikaren bitartez pertsonen bizi-kalitatea hobetzen ([www.musikoterapia.es](http://www.musikoterapia.es)).**



Hiru urte dira dagoeneko musikoterapia Argentinatik ekarri zuela Maria Rodriguezek.

## MARIA RODRIGUEZ (MUSIKUM)

### “Musikarekin norbanakoaren ongizatea hobetzea da asmoa”

**- Zerbitzu anitz eskaintzen dituzu Musikum zentroan, horien artean musikaterapia. Zertan datza hori?**

Musikaterapia musika, soinua eta mugimendua eskuhartze modura erabiltzen duen terapia da. Musikaterapeuten zat, musika helburu terapeutikoak lortzeko errekurtsoa da. Terapia batez ari gara berbertan, non bezeroak tratamendu bat eskatzen duen bere ongizatea hobetzeko. Orduan, guk musika, soinua eta instrumentuak erabiltzen ditugu hori lortzeko.

**- Zer da, musikaterapiaz gain, Musikumen eskaintzen dena?**

Bakarkako musikaterapia tratamenduak egiten ditugu autismoa, gabezia intelektuala... dutenentzat, edo musikaren bitartez berbekin baino hobeto adierazi daitekeela uste dutenentzat. Bestetik, musika eta mugimendu klaseak egiten ditugu 3 urtetik gorako umeen-

tzat, eta estimulazio musikaleko klaseak 4 hilabete eta 3 urte bitartekoentzat. Abestu egiten dute, instrumentuak jo, dantzan egin... kontua ondo pasatzea da.

**- Gazteak bakarrik ala helduak ere etortzen dira?**

San Agustinen bateria, gitarra, bibolin eta piano klaseak ematen ditugu, eta hara bai jotzen dira. Ez dago solfeoakin beharrik bertan aritzeko, musika lengoia baita, lehenik berbaz adierazten dena eta gero idatziz. Hori bera egiten dugu han, lehenik musika jo, erritmoa sentitu eta abar, eta ondoren notak ikasi.

**- Argentinara joan behar izan zenuen musikaterapia ikastera.**

Han normala da ospitale-tan-eta musikaterapeutak izatea, ez hemen bezala. Nire erronka musikaterapia handik hona ekartzea izan zen eta badaramatzat hiru urte jada honekin.

Hilaren 26an (eguenean) aurkeztuko dute **“Historia de las Mujeres de Eibar”** Arantza Lasak idatzitako liburua, Coliseoan 20.00etan hasiko den ekitaldian. Liburuaren egilearekin batera, Jone Miren Hernández EHU-ko irakasleak jardungo du berbetan. Liburua aurkezteko ekitaldiak, bestalde, Olatz Ormaetxeak zuzendutako Pausoz Pauso taldearen (Amaia Alcoba, Leire Etxaniz, Maria García, Iraia Ibáñez, Miriam Merino eta Lara Portu) dantza saioa hartuko du. Ego Ibarra Batzordeak argitara eman duen liburuak prezio berezia izango du (8 euro) aurkezpen egun horretan.

**JONE MIREN HERNANDEZ**, antropologoa:

## “Liburuak ate asko zabaltzen ditu”

**- Nondik nora enfokatuko duzu datorren egueneko hitzaldia?**

Prestatzen dihardut eta nahiko bideratuta dut dagoeneko. Edukian zentratu baino gehiago, hausnarketa historikoa egingo dut, bereziki emakumearen ikuspuntutik begiratuta. Hau da, zergatik duen interesa azpimarratuko dut, zer eragiten duen historia hori eta tokikoa izatearen baloreari ere garrantzia emango diot.

**- Horrelako liburu batek zein aportazio egiten dio gizarte osoari?**

Kasu honetan, oker ez banago lehenengo liburua da horrelako azterketa egiten duena Eibarren. Horrek interes handia, argazki orokorra eskaintzen baitigu. Denboraren makinan bidaia egingo bagenu modukoa da, bertako paisaia irudikatzea gure esku

jarzten duena. Berez, ez da zentratzen arlo edo sasoi jakin batean, baina abiapuntua da da hurrengo lanetan sakontzen hasteko. Eskaintzen duen ikuspegia oso gustokoa dut eta irekitzen dituen ateak ere kontuan izan behar dira.

**- Gure gizartearen emakumeak egindakoa bere tokia har dezan, zein arlotan dago premiarik handiena?**

Arlo asko daude. Urteak darmatzagu korriente hori garatzen, bai Euskal Herrian bai munduan eta, pertsonalki, interes berezia pizten dit egunerokotasunean emakumeek egin duten lana: lan mundutik aparteko eta garrantzi handiko behar hori. Liburuan ere ondo islatuta geratzen da mila lan txikietan emakumeek egun



osoa pasatzen zutela... zaintzari lotutako zereginetan, ikusten ez den lan nekosoan. Askotan lana kontsideratzen ez diren horiek aldarrikatu behar ditugu. Gizonezkoek lan egiten zuten, baina andrak ere eurekin zihardutela kontziente izan behar dugu.

**- Oraindik ere oztopo askorekin aurkitzen gara berdintasunaren bide horretan. Legeen eta baloreen artean hainbeste aldea dago?**

Jakina, berdintasun formalaren eta ez formalaren artean aldea dago oraindik. Onarpen soziala lortuta ere, diskurtsoan bat egitea lortu arren, gero egunerokotasu-

nak erakusten digu maila pertsonalean, komunitate mailan eta globalki balore horiek ez daudela guztiz garatuta. Horko egiturak sendo dihardu eta bakoitzak bere ekarpena egin behar du. Alde batetik, dezenteko aldaketa eman arren, abiadura handiagoa behar dugu. Berdintasuna lortzea ez da emakumeen gauza bakarrik; gizarteak barneratu behar du. Jarrera aldatetak denon aldetik egin behar dira eta bakoitzak bere hausnarketa egin behar du. Mundu akademikoan eta instituzionalean dagoeneko onartutakoa kalean islatu behar da, horretarako baliabideak eskainiz.



Arantza Lasak liburuaren egilea Mari Jose Lasak udal teknikariarekin.



Ardantzako libxerak XX. mendearen hasieran, euren ofizoaren trepetxuekin. / REVISTA EIBAR FONDOKOA / ROSARIO ARANBURU.

Udan adimena garatu daitekeela argi laga du UEU-k urte askotan zehar. Udako ikastaroen bitartez gai ugari jorrotzen dituzte Euskal Herriko hainbat txokotik etorritako lagunek Markeskua jauregian, eta aurten ere horrela izango da. Matrikula egiteko epea zabalik dago [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunean.



**IDOIA TORREGARAI, (UEU):**

## “Berritasuna eta kalitatea dira gure helbururua”

**- 35 ikastaro eskainiko dira Udako Ikastaroetan, horietatik 18 Eibarren, Markeskuan. Aldaketa asko dago iazko eskaintzarekin alderatuz?**

Kopuruan ez: 30-35 ikastaroren bitartean ibiltzen gara logistika eta kalitate kontuengatik. Azken urteotan, Iruñea eta Iparraldeaz gain, Eibarren ere ikastaroak eskaintzen hasi ginen eta arrakasta handia izan da. Ikusten da gure bezero potentzial handiena hegoaldean dagoela eta Eibarko kokapena zentzu horretan ezinhobea da.

**- Iaz 400 ikaslek hartu zuten parte ikastaroetan eta 5etik 4,6ko balorazioa jaso zuten ikastaroek. Zaila da, baina nola saiaturik zarete zifra hori hobetzen?**

Gure erronka ikastaroak urte-urtera aldatzea da: lehen erronka da gaien berritasuna biltzea. Gai batzuk errepikatzen badira ere, berritasuna nahi dugu, kalitatea eskainiz eta jendea erakarri. Gaiaren gaineko interesa sortu behar dugu lehenik eta, horrekin batera, adituak egokiak izan behar dira, gaiari maila ematen diotenak; oso harro gaude zentzu horretan, denek gogoia baitute ikastaroak emateko eta interes handia erakusten baitute.

**- Nolako da ikastaroen metodologia?**

Gaien trataerak garrantzia du, ez baita unibertsitatean ikasturte osoan emandako ikasgaia modukoa izaten. Beste buelta bat ematen saiatzen gara: tailerrak egin, gauza praktikoak, feed-back-a lantzen... interakzioa dago eta horrek hurbiltasuna sortzen du. Taldeak 15 lagunekoak izaten dira gehienetan (horregatik jendeak izena ahalik eta azkarren eman beharko luke) eta parte-hartzea sustatzen dugu. Bai gazteei zeinen helduei gaiak euskeraz garatzeko aukera ematen diegu.

**- Ikasleek badute halako profil markaturik?**


Gehienak Bizkaia eta Gipuzkoatik datoz, eta profilari dagokionez azken hamarkadan joera aldatu egin da. Lehen unibertsitateko ikasleak baziren gehienak, gaur egun profesionalak etortzen dira batipat. Aktibo dagoen jendea, euren lanean birziklatu nahi dutenak, edo eskaintzen direnako gairen bat gustatzen zaienak eta hori landu nahi dutenak. Gehienak emakumeak izaten dira, 30-35 urte bitartekoak, baina gaiaren arabera generoak banatu egiten direla nabari da oraindik. Gai teknikoetan gizonenak izaten dira nagusi eta gizarte edo hezkuntza gaietan emakumeak.



## Ikasleen bertso jaialdiak Coliseoan

**DATORREN ASTEAN, ASTELEHENEAN ETA MARTITZENEAN, HERRIKO HAINBAT IKASTETXEKO IKASLEEK BERTSOTAN JARDUNGO DUTE COLISEOAN, 18.00etatik aurrera. Asteleheneko saioan, La Salle, Arrateko Andra Mari eta Urkizu ikastetxeetako LH5. eta LH6. mailetako ikasleak izango dira taula gainean eta hurrengo**

egunean, berriz, Iturburu, Aldatze eta Amañakoen txanda izango da. Aurtengoa horrelako jaialdia antolatzen duten laugarren urtea izango da eta, aurrekoetan bezala, herriko ikastetxeetan 15 taldek lantzen jardun duten “Gure bertsoan”, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen programaren testuinguruan egingo dira saioak. Sarrerak euro bat balio du.



## Berbalagunak Bilbon

**URTEKO SASOI HONETAN EGIN OHI DUTEN MODUAN, EGUN PASA IZAN ZUTEN AURREKO ZAPATUAN BERBETAN EGITASMOKO KIDEEK.** Eurriari aurre eginez, goizean goiz trena hartuta 17 laguneko taldea abiatu zen Bilbo aldera. Han ordu eta erdiko bisita gida-

tua zuten zain, Alde Zaharrean. Kalderapeko tabernan bapoz bazkaldu eta abestu eta gero, batzuk Alhondiga bisitatzera joan ziren eta beste batzuk, aldiz, Alde Zaharrean gelditzea erabaki zuten. Berritua ere trena hartuta, pozarren bueltatu ziren Eibarrera.



## Transmisioa aztertzeke mintegia

**DATORREN EGUAZTENERAKO EUSKERAREN TRANSMISIOAREN INGURUKO MINTEGIA ANTOLATU DU ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK.** Mintegian euskeraren transmisioak duen garrantzia azalduko dute eta, horretarako, EAEko hainbat erakundetako ordezkariak zein esparru ho-

rretan beharren diharduten aditu eta teknikariak gonbidatu dituzte, bakoitzak bere arloaren inguruko azalpenak eman ditzan. Besteak beste, euren ponentzietan Nafarroako ekimenak, Ikastolen Federazioaren esperientzia, transmisioa aisialditik lantze-ko Getxon eta Arrasaten izandako esperientziak, Udaletako ekimenak eta soziolinguistikako ikuskera moduko kontuak landuko dituzte eta, berbaldiekin batera, mahaingurua ere prestatu dute. Mintegia goizetik (08.45etatik 13.30etara) eta arratsaldetik (15.00etatik 17.30etara) emango da, Portalean. Izena emateko azken eguna gaur da eta, horretarako ...eta kitto! Euskara Elkartera zuzenean jo daiteke (Urkizu, 11 solairuartea) edo, bestela, telefonoz deitu (943200918).

*Gaur da azken eguna eguaztenean egingo den mintegian izena emateko*



## Jaixak Herrixak Herrixandako kamiseta lehiaketa

**AZKEN ASTEOTAKO MARTXARI JARRAITUTA, GAUR ARRATSALDEAN 19.30-ETAN MONTEKA TABERNA PAREKO PARKEAN** berriro batzeko dei

egin nahi dute Jaixak Herrixak Herrixandako gazteek, San Juan jaietarako jarduerak antolatzen joateko. Jaiak ailegatu bitartean barixakuero egitekoak diren bilera irekiak dira eta "jai herritarren aldeko edozein ongi-etorria" izango dela diote. Bestalde, urtero ateratzen diren kamiseta koloretuen diseinua aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Baldintza bakarra kamisetetan "Jaixak Herrixak Herrixandako" idatzita

agertu beharko dela da. Proposamen guztiak ekainaren 3a baino lehen jaso nahi dituzte, "kamisetak jaietarako sasoiz egin ahal izateko".



Astero barixaku arratsaldetan bilera irekia egiten dute Monteka parean. / MAIALEN BELAUSTEGI

## laburrak

### ARRILLAGAREN SAIO BIKAINA

Mikel Arrillaga bertsolari eibartarrak bikain jardun zuen Mutrikuko sailkapen faserako saioan eta 321'5 puntu eskuratuta, bere taldekoen artean bigarren sailkatu zen (guztira lortutako puntuetan, bigarren sailkatu zen Oihana Iguaranekin berdinduta). Eibartarrak sailkapen faseko hurrengo saioa hilaren 29an izango du, 17.30etan Aretxabaletako Arkupe Etxean.

### BERTSO BAZKARIA SORALUZEN

Bihar bertso bazkaria egingo da Sorakuzeko gaztetxean, Eneko Beretxinaga, Eneritz Artetxe eta "Ministro" bertsolariekin. Tiketak 8 eurotan salgai daude Soraluzen, Arrano eta Gaztelupe tabernetan eta Eibarren, Depor eta Karrika tabernetan.

### DANI GASCÓN-EN KONZERTUA

Eguaztenean, hilaren 25ean, 21.00etatik aurrera Dani Gascón musikari eibartarrak kontzertua emango du Madrilgo Sala Caracol-en, talde berrientzat bereziki prestatutako ekitaldian.

UDAL HAUTESKUNDEAK 2011

BOZKATU



badago eibar hobetzerik

[zerbait egin daitekeela pentsatzean, egia bihurtzen da]

www.ezkerbatua-berdeak.org



## Museoak eta memoria bat eginik

**EGUAZTENEAN, MAIATZAREN 18-AN OSPATU ZEN NAZIOARTEAN MUSEOEN EGUNA ETA, AURREKO URTEETAN BEZALA, aurtien ere Eibar**ko Museoak bat egin du ospakizunarekin, eguaztenean bertan hasi eta domeka bitartean gartzan diharduten "Museoak eta Memoria" izenburuko ekimenare-

kin. Izan ere, urtero izenburu ezberdina aukeratzen da Museoen Egunerako eta, aurtengoari jarraituz, museora doazenak denboran atzera begira ipini nahi dituzte museoko arduradunek, baikoitzaren oroitzapen eta bizipeanak batuta, horiek guztiak gure herriaren historiaren zati baten isla izan nahi duen liburu bere-

zian jasotzeko. Horretarako, eta ahalik eta jende gehien museora joatera animatu dadin, domekara arte museora sartzea doan izango da. Bisitan joandakoek, museoan ikusgai dauden argazki eta bestelako objektuak ikustean, horiekin lotutako kontuak gogoratzen joango direla uste dute museoko arduradunek eta, gainera, belaunaldi ezberdinetako bisitariek bat egitean, gazteek nagusiengandik ikasteko aukera izango dutela azpimarratu dute. Bestalde, norbaitek etxean argazki esanguratsuren bat izanez gero, museora eramatera animatu nahi dute, bertan kopia atera eta, ondoren, osatu nahi duten liburuan ipintzeko. Museoak ohizko ordutegian zabalduko ditu ateak Portalean (5. pisuan): gaur eta bihar 16.00etatik 20.00etara eta domekan, berriz, 10.00etatik 13.00etara.



Gaur, bihar eta etzi Eibarko Museora sartzea doan izango da. / MAIALEN BELAUSTEGI

## UEMA Eguna Bergaran ospatuko da


**AURTEN UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN EGUNA BERGARAN OSPATUKO DA, EKAINAREN 4-AN (ZAPATUAN).** Aurtengo edizioarako aukeratutako leloa "...gure hizkuntzak har dezan arnas" da eta horren harira antolatutako egitarauari hasiera 10.30etan emango diote, San Martin Plazan hasiko diren hitz gurutzatuen binakako lehiaketako kanporaketekin. Hortik aurrera, umeentzako jokoak, ekitaldi instituzionala, kantu-jira eta herri-bazkariak betekote dute goiza eta bazkalosteko kantu-animazioaren ondotik umeentzako tailerrak eta jokoak

eta dantzaldia egingo dira. Gaueko 23.00etan gaztetxean egingo den kontzertuarekin agurtuko dute aurtengo egitaraua. Antolatzaileek argitu dutenez, hitz gurutzatuen lehiaketan parte hartzeko izen-ematea doakoa da eta 16 urtetik gorako edozeinek har dezake parte; kantu-jiran parte hartzeko, berriz, ez dago inon izena eman beharrik; eta bazkarirako txartelak UEMAko edozein udal-eros daitezke (18 eurotan nagusientzat, 12 eurotan umeentzat). Argibide gehiagorako 943-779166 telefono zenbakira deitu daiteke (Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua).



## Gurasoak Berbetan Arratera

**JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLA ETA SAN ANDRES IKASTETXEKO GURASOENTZAT ANTOLATUTAKO MINTZAPRAKTIKA EGITASMOKO KIDEEK** Arraten pasako dute biharko eguna. Goiz partean hainbat joko antolatuko dira gurasoak eta seme-alabek elkarrekin jardun dezaten, euskaraz jakina, eta Arraten bertan bazkaldu ondoren, arratsaldean ere izango da jokorik. Guraso euskaldunak guraso ia euskaldun edo euskaldun berriekin elkartzen ditu egitasmo honek, astean behin ordubetez, euskaraz berba egiteko helburuarekin. Datorren ikasturtean herriko ikastetxe guztietara zabalduko da mintzapraktikako egitasmo hau.




## Joseba Tapia gaur Coliseoan

**GAUR ILUNTZEAN, 20.30-ETATIK AURRERA JOSEBA TAPIAK EMANALDIA ESKAINIKO DU COLISEO ANTZOKIAN (5 EURO).** Trikitilari eza-gunak gurean "Tira eta tunba" diskoa aurkezteko aprobetxatuko du bisita: Bigarren Karlisdan karlistek zein liberalek idatzitako bertso musikatuak osatutako lanari esker gatazkari buruzko ikuspegi bitxia jasotzeko aukera izango du publikoak. Diskoan jasotako

abestien zerrendan, besteak beste, "Mikeleten ziria", "Biba gu eta gutarrak", "Konstituzio berria", "Ta noiz zuazte", "Hernani dago penoso", "Apaizak tiraka pin pon", "Lastozko barkuak ta zurezko kanoiak" eta beste hainbat aurki ditzakegu. Kontzertua Bigarren Errepublikaren aldarrikapenaren 80. urteurrenaren harira antolatu du Udalak eta, honekin, apirillean hasitako programazioa biribilu eta agurtu egingo dute.

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, GARAZI Mendieta, bixar zortzi urte beteko dozulako. Etxekuen eta, batez be, Gaizkaren partez.




Ongi etorri, EÑAUT, eta zorionak amatxo Haizea eta aitaxo Gorkari holako mutil edarra ekartziagaitik. Familixaren eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, KAI Simpson, martitzenian bost urte bete zenduazelako. Lekixoko mutil polittenari, famelixaren partez.



Zorionak, MAIALEN, zure bigarren urtebetetzian. Muxu pilla bana gure printzesarentzat etxekuen partez.




Zorionak, PAULE, haraiñegun lau urte egin zenduazena-eta. Patxo potoluak aitta, ama, Danel eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, amama BITTORI, gaur urtiak betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, GORKA, bixar zazpi urte beteko dozulako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JOEL, bixar urtia egingo dozu-eta. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, MARIA, atzo zazpi urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat, gure printzesarentzat, famelixaren partez.



Zorionak, EMILIO eta FELISA, hillaen 18xan urrezko ezteiak ospatu zenduazena-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, PABLO, astelehenian hiru urte beteko dozulako. Patxo bat famelixaren eta, batez be, Aitorren partez.

## zinea Coliseoan



**"Fast & Furious 5"**  
Zuzendaria: Justin Lin  
Aktoreak: Elsa Pataky, Vin Diesel, Paul Walker, Jordana Brewster

**20an: 22.30**  
**23an: 20.30**



**"No tengas miedo"**  
Zuzendaria: Montxo Armendariz  
Aktoreak: Michelle Jenner, Luis Homar, Belen Rueda, Nuria Gago

**20an: 22.30**  
**23an: 20.30**




**"Sin identidad"**  
Zuzendaria: Jaime Collet-Serra  
Aktoreak: Liam Neeson, Diane Kruger, Bruno Ganz, Frank Langella

**20an: 22.30**  
**23an: 20.30**



Zorionak, ANE, atzo zortzi urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, AIORA Goitandia, bixar bost urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.

## DENBORAPASAK

		1		2	4			
		9		1		3		
	5						4	6
2			9		1			
3	8						1	7
			4		8			3
5	1						3	
		3		4		5		
			5	8		7		

sudoku

## HILDAKOAK

- Maria Uribe Larramendi. 85 urte. 2011-V-12.
- Elisa Moncalvillo Pascual. 89 urte. 2011-V-14.
- Manuel Mosquera González. 69 urte. 2011-V-15.
- Lourdes Aranzabal Agote. 71 urte. 2011-V-16.
- Pedro Irusta Mallukiza. 78 urte. 2011-V-16.
- Jesus M<sup>o</sup> Iriondo Beitia. 83 urte. 2011-V-16.
- Jose Bastida Orbea. 84 urte. 2011-V-16.
- Eulogio Martín Escolar. 68 urte. 2011-V-18.
- Clara Alberdi Urriola. 92 urte. 2011-V-18.
- Javier Zabaleta Azkarraga. 87 urte. 2011-V-18.

## JAIOAKOAK

- Malen Hidalgo Díez. 2011-V-8.
- Telmo Vadillo Menéndez. 2011-V-9.
- Leire Gestal Martínez. 2011-V-10.
- Eñaut Cobos Fernández. 2011-V-11.
- Gaizka Ruiz Hernández. 2011-V-11.
- Ane Ruiz Hernández. 2011-V-11.
- Unax Luengo Molina. 2011-V-13.
- Iker Gouveia Faria. 2011-V-13.

## horoskopoa

**ARIES**

Nahiko ahul hasiko duzu astea eta kostako zaizu buelta ematea. Ez duzu gehiago behar izango, ez baituzu gauza handiegirik egin beharko.

**TAURUS**

Ez etsi. Gauzak zuk nahi bezala irten ez arren, sinisten duzun horren alde borrokatu behar duzu. Gutxienez, gustora geratu zaitez zurekin.

**GEMINI**

Azkenean, heldu da bozkatzeko sasoi. Atzean geratu dira kanpainak, tira-birak eta buruko-minak. Pentsatu duzu nor bozkatuko duzun?

**CANCER**

Pentsatuko duzu aste bakoitza aurrekoaren berdina dela, baina ez da horrela. Gauza berriak gertatzen dira egunerorik; konturatu zaitez.

**LEO**

Berbetako gogoarekin ibiliko zara egunotan. Begira lagunen aurpegiak, noiz isilduko zaren zain egongo dira! Barregarria bzara gero!

**VIRGO**

Dena alde izango duzu zure helburuak betetzeko, baina azken momentuan adorea faltako zaizu. Ea azken pausoa emateko gauza zaren.

**LIBRA**

Erabat asaldatuta egongo zara asteburuan. Mila gauza izango dituzu buruan eta denak ondoan betetzea nahi izango duzu. Hartu lasai!

**SCORPIUS**

Asteburu ederra igaro eta gero, animo zoragarriarekin hasiko duzu astelehena. Udaberria da zure sasoi: hor ez izan zalantzarik.

**SAGITTARIUS**

Zure iritzia emateko gogoa baduzu, ez gorde barruan! Ez pentsatu zure berbak besteenak baino gutxiago balio duela, ez da horrela-eta.

**CAPRICORNIUS**

Harro egongo zara egindakorekin, baina kontuan izan behar duzu ez duzula dena behar den moduan egin. Hala ere, zorionak!

**AQUARIUS**

Nahiko lanpetuta ibiliko zaren arren, ez duzu umore ona galduko. Benetan gustoko dituzun gauzak egitean ez dago gaizki egoteko arrazoirik.

**PISCIS**

Ez duzu inori zure bizitzaren gora-beherak kontatu beharrik. Zure esku dago nahi diozun horri kontatzea. Badakizu nolako den jendea.

## Barixakua 20

**MUSEOA**

**16.00/20.00.-** Museoen Nazioarteko Eguna: "Oroitzapenaren liburua". Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. pisuan).

**ABONTZAKO JAIAK**

**18.30.-** Txupinazoa eta suziariak.  
**19.00.-** Umeentzako ikuskizuna (euskeraz).  
**20.00.-** DJ Festa.  
**21.00.-** Jai gastronomikoa (ardo-dastatzea eta patata-tortila txapelketa).  
**00.00.-** Monologoa. Egigurentarreneko parkean.

**JAIAXK HERRIXAK HERRIXANDAKO**

**19.30.-** Jai eskaldun, parekide eta parte-hartzaileen aldeko bilera irekia, Jaixak Herrixak Herrixandako deituta. Monteka parkean.

**KONTZERTUA**

**20.30.-** Joseba Tapia: "Errepublikako kantak". Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

## Zapatua 21

**SKATE ESKOLA TOUR**

**09.00.-** Patinatzeoko pisten muntaketa.  
**11.00.-** Skate eskola (10-16 urte bitartekoentzat).  
**14.00.-** Patin-librea (nahi duenarentzat, begiraleek zainduta).  
**16.00.-** Txapelketa + Ginkana skater.  
**18.00.-** Dena jasotzen hasiko dira. Urkizun.

**ARGAZKILARITZA MAIATZEAN**

**10.00/14.00 eta 16.30/20.00.-** Kaptura digitala eta Raw errebelatua (tailerra), Hugo Rodriguezen eskutik. Portalean.

**ABONTZAKO JAIAK**

**11.00.-** Suziriak. Buruhandiak.  
**11.30.-** Umeentzako jolasak.  
**12.30.-** Txistorra-jana. Txikiteoa.  
**14.30.-** Herri-bazkaria: 400 lagunendako paella.

**ABONTZAKO JAIAK**

**17.00.-** Toka eta igel-toka txapelketa (Ipuruako jubilatuen etxeko atarian).  
**17.00.-** Karaokea gazte eta nagusientzat.  
**17.30.-** Txokolate-jana nagusientzat (Ipuruako jubilatuek etxean).  
**19.00.-** Txapelketetako irabazleei sariak banatzeko ekitaldia.  
**19.30.-** Gorriti eta bere abereak.  
**21.00.-** Berbena, Lisker taldearekin (hasiera).  
**21.30.-** Parrillada erraldoia (saiheskia, oilasko hegala eta txorizoa).  
**22.00.-** Berbena, Lisker taldearekin (jarraipena). Egigurentarreneko parkean.

**BERTSO BAZKARIA**

**14.30.-** Bertso bazkaria. Bertsolariak: Eneko Beretxinaga, Eneritz Artetxe eta Ministro. Soraluzeko Gaztetxean (Soraluzen).

**MUSEOA**

**16.00/20.00.-** Museoen Nazioarteko Eguna: "Oroitzapenaren liburua". Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. pisuan).

**AFARIA**

**21.00.-** 1948an jaiotako en afaria. Arrate hotelean.

## Domeka 22

**MUSEOA**

**10.00/13.00.-** Museoen Nazioarteko Eguna: "Oroitzapenaren liburua". Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. pisuan).

**ABONTZAKO JAIAK**

**12.00.-** Auzoko hildakoen oroimenezko meza eta lora eskaintza, Goruntz abesbatzarekin. San Pio X.a elizan.

## Astelehena 23

**ANTZERKIA**

**15.00.-** Goizeko Izarra ikastola eta San Miguel ikastetxea (Mutriku). Debabarreneko Eskolarteko XXVII. Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

**BERTSO JAIALDIA**

**18.00.-** Ikastetxeetako bertso jaialdiak. Coliseoan.

**HITZALDIA**

**16.30.-** XIX. Ricardo Alberdi Aste Soziala: "Krisi ekonomikoa eta lan-merkatuan duen eragina". Hizlaria: Inmaculada Gallastegi Ekonometria Katedraduna EHU. Portalean (2. solairuan, areto nagusian).

## Martitzena 24

**IKASTEN**

**10.00.-** "La literatura picaresca del siglo XVI y XVII", Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

**ANTZERKIA**

**15.00.-** "El doncel del caballero" (Teatro La Quimera, Valladolid). Debabarreneko Eskolarteko XXVII. Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

**BERTSO JAIALDIA**

**18.00.-** Ikastetxeetako bertso jaialdiak. Coliseoan.


**HITZALDIA**

**19.30.-** XIX. Ricardo Alberdi Aste Soziala: "Gizarte Segurantzaren eta lan erreforma". Hizlaria: Tomas Arrieta. EAE Lan-Harremanteko Kontseiluko Lehendakaria. Portalean (2. solairuan, areto nagusian).

## Eguaztena 25

**MINTEGIA**

**08.45.-** Akreditazioa eta dokumentazioa jasotzea.  
**09.00.-** Ongietorria.  
**09.40.-** Hitzaldia: "EAEko euskeraren belauneko belauneko transmisioa".  
**10.20.-** Transmisioa Nafarroan: Bortzirietako esperientzia.  
**10.55.-** Ikastolen Federazioaren esperientzia.  
**11.25.-** Atsendaldia.  
**11.50.-** Transmisioa aisialdian (Getxo eta Arrasate).  
**12.50.-** Udaletako ekimenak (Lasarte).  
**13.30.-** Bazkaria.  
**15.05.-** Paula Kasares-en hitzaldia.  
**16.05.-** Mahaingurua.  
**17.20.-** Agurra.



erakusketak

– Maiatzaren 29ra arte  
**GERVASIO SANCHEZ**-en “Vidas minadas”,  
**M<sup>a</sup> GRACIA DE LA HOZ** (Ojanguren 2010  
 Lehiaketako Ohorezko Saria) eta **JOSEBA IBARRA**  
 (CEF 2010 Argazkilaritza Sari Nazionala) argazki  
 erakusketak. *Portalean.*

– Maiatzaren 31ra arte  
**WENTONG WANG ETA FENG XIAOHUI**  
 argazkilarien lanak. *Untzagako jubilatuen etxean.*  
**30 ARGIZAIOLA LEHIAKETA.** Klub Deportiboan.  
**DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA**ren  
 erakusketa kolektiboa. *El Ambigú eta Portalea*  
*tabernetan.*

**ARGAZKI LEHIAKETA**ko lanen erakusketa.  
*El Corte Inglés-eko erakusketa aretoan.*

mintegiak

– **Euskararen Transmisioari buruzkoa.**  
 Noiz eta non: Maiatzaren 25ean (08.45etatik  
 13.30etara eta 15.00etatik 17.30etara), *Portalean.*  
 Informazioa eta izen-ematea: ...eta kitto! Euskara  
 Elkartearen (943200918 telefonoan).

farmaziak

- 20, barixakua**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 21, zapatua**  
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
 GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 22, domeka**  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 23, astelehena**  
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 24, martitzena**  
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 25, eguaztena**  
 EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)  
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 26, eguena**  
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
 GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 27, barixakua**  
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)  
 GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

telefono jakingarriak

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea**943 70 07 99**
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00eta-  
 tik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30eta-  
 ra orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik  
 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30,  
 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-**  
**NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik  
 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara  
 orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00,  
 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00.  
 Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro,  
 19.30, 21.00 eta 22.00.  
**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak:  
 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-  
 etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegu-  
 nak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta  
 jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.  
**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik  
 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta  
 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.  
**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-  
 etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegu-  
 nak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.  
**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta  
 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** La-  
 neguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.  
**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegu-  
 nak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRA-**  
**TE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30,  
 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.  
**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta  
 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EI-**  
**BAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak:  
 12.30 eta 19.30.  
**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta  
 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak:  
 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak:  
 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.**  
 Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta  
 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45eta-  
 ra orduro eta 21.55.

tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik  
 22.13etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak:  
 baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero:  
 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. La-  
 negunak: baita 05.47 eta 06.47.  
**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-  
 etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita  
 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57eta-  
 tik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak:  
 baita 05.57.

Eguena 26

**IKASTEN**  
**11.00.-** Kafe-tertulia:  
 “Alimentos transgénicos”.  
 Deporren.

**DANBORRADA**  
**19.00.-** Sanjuanetako  
 umeen danborradarako  
 entsegua (helduena 20.00etan  
 hasiko da). Beistegi eraikinean  
 (B. Sarasketa kalean).

**HITZALDIA**  
**19.30.-** XIX. Ricardo  
 Alberdi Aste Soziala: “Agente  
 ekonomiko eta sozialak  
 krisiaren aurrean eta  
 testuinguru honetan hartutako  
 neurriak”. Hizlaria: Angel  
 Toña, Deustuko Unibertsitateko  
 Irakaslea. *Portalean*  
 (2. solairuan, areto nagusian).

**IKASTEN**  
**10.00.-** “La literatura  
 picaresca del siglo XVI  
 y XVII”, José Domingoren  
 eskutik. Armeria Eskolan.

**ANTZERKIA**  
**15.00.-** “Lola” (Calamar  
 Teatro, Valladolid). Eskolarteko  
 XXVII. Antzerki Erakusketaren  
 barruan. Hezkuntza Esparruan.

**EKINTZAILE EGUNA**  
**18.00.-** Debabarrena  
 Ekinean! Enpresen azokari  
 bisita.  
**18.40.-** Hitzaldia:  
 “Mentoring eta Ekintzailatasuna”  
 Juan Luis Urkolaren eskutik.  
**19.10.-** 2011 Debabarrena  
 Ekinean! Eta Bai Industriari!  
 errekonozimenduak: Plus  
 Ekimena, iraunkortasuna,  
 talde-lana eta Bai Industriari!.

**19.50.-** Piskolabisa,  
 TxioKaren eskutik. Debegesan  
 (Azitaingo industrialdean).

**XLVI. EUSKAL JAIA**  
**19.30.-** “Kalamuako  
 Parlamentua” lehiaketa  
 (binaka txapelketa). Deporren.

**IKASTEN**  
**19.30.-** Kaleetan  
 Kantuz-erako entsegua.  
 San Andres elizako lokalean.

**LIBURU AURKEZPENA**  
**20.00.-** “Historia de las  
 mujeres de Eibar”. Hizlariak:  
 Arantza Lasa Astola (egilea)  
 eta Jone Miren Hernández  
 García (EHUKO irakaslea).  
 Pausoz-pauso taldearen  
 dantza-saioa. Liburua prezio  
 berezian salgai (8 eurotan).  
 Coliseoan.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai Mendaroko erdialdean. 80 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira. 126.000 euro. Deitu astelehenerdik barixakura. Tel. 943-700690.
- Pisua salgai Juan Antonio Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. Tel. 610-603631.
- Pisua salgai Armagin kalean, Txaltxa-Zelai ondoan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziagarrria. Tel. 675-700864.
- Pisua salgai Errebal inguruan. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. 200.000 euro (aste honetan 140.000). Tel. 676-724966.

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruetan. Logela bikoa. 400 euro inguru ordaintzeko prest. Tel. 672-693035 eta 649-313548.
- Gaztea behar da pisua konpartitzeko Eibarren. Tel. 656-734810 (Alazne) eta 650-771995 (Jone).
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruetan. Tel. 693-950032.
- Pisua alokagai Torreveijan uda parterako. Hondartza minutu bira. 2 logela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Tel. 943-201077.
- Pisua alokagai Ermuan. Tel. 658-735514.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Garajea salgai Amaña 14an. Tel. 635-719595.

### 3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan Ipuruako dorreen inguruan. Tel. 620-917212.
- Lokala alokagai Amañan. 180 m<sup>2</sup>. Argitsua eta ibilgailuarentzako sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
- Txontan lokala alokagai. 485 m<sup>2</sup>. Beheko solairua eta kamioiarentzako sarrera. Prezio onean. Tel. 943-202729 eta 650-022371. Bixente.
- Garaje itxia alokagai Matsarian, Estaziño aurrean. 3x5 metrokoa, labareroarekin. Tel. 610-395630.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 620-853295.
- Neska arduratsua eskaintzen da astegunetan arratsalde eta asteguruetan edozein lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta gauzez laguntzeko. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da 13.00etik 16.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 678-972690.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 669-068439.
- Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-778554.
- Neska eskaintzen da zapatu, domeka eta jaiegunetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 645-651309.
- Neska eskaintzen da arratsalde garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-691964.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 685-761979.
- Klimatizazio, iturgintza eta elektrizitatea teknikaria eskaintzen da lan egiteko. Tel. 669-034991.
- Gizarte Hezkuntza ikasketak egiten diharduen guraso euskaldunak umeak zaintzeko lituzke. Tel. 676-392055.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 635-355168.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 673-875123.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 655-384877.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako eta gozogle moduan. Tel. 652-587259.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdur/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduka. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, garbiketarako lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Gizona eskaintzen da txofer jarduteko edo baserrian lan egiteko. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 699-813826.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-068463.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-935379.
- Neska eskaintzen da goizetan umeak zaintzeko. Tel. 677-591982.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-445088.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Urte biko esperientzia. Tel. 652-587259.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 605-129530.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko (gauzez ere bai) eta etxeko garbiketarako egiteko. Autoarekin. Tel. 653-723095 eta 943-254260.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxekolanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 943-200994 eta 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 655-077394.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 665-301550.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxeko lanetarako. Tel. 635-187901.

## 4.2. Langile bila

- Emakumea behar da eguerdian etxeko lanak egiteko. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 600-377367 eta 943-200020.
- Odontologoa eta klinika-laguntzaile behar dira Eibarko hortz-klinika batean. Beharrezkoa esperientzia izatea. Tel. 943-700082.
- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 699-902800.
- Kamarera/o behar dira asteburuetarako. Autoarekin. Tel. 677-638184.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Plegatzeko aulki-makila salgai, Chicco markakoa. Autoko segurtasun aulkia (9-25 kilo) eta egurrezko tronarekin. la berria. Tel. 617-256466.
- Binilozko diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- Ohe artikulatua salgai. la berria. Tel. 666-062285.
- Somierra eta koltxo tolesgarriak (0'80koak eta erabili gabeak) eta egurrezko markodun ispilua (1'60x0'50) salgai. Prezio erdian. Tel. 943-120308.
- "Sojabella" esne begetala egiteko makina salgai. Gutxi erabilia. 75 euro. Tel. 630-448560. Aitziber.
- Altzoan umea eramateko "Easy Care" fularra salgai. Erabili gabe. 55 euro. Tel. 630-448560. Aitziber.
- Karateko kimonoa eta Adidas markako eskularruak salgai. Erabili gabe. 50 euro. Tel. 630-448560.

### 6.4. Bestelakoak

- Umeak bizikletan eramateko aulkitxo behar dut. Tel. 646-293311. Alberto.

**Debegesa**

Debabarreneko Garapen  
Ekonomikorako Elkarteak

Sociedad para el Desarrollo  
Económico de Debabarrena

**Debabarrena  
Ekinean!**


## **Ekintzailearen Eguna 2011**

### **Maiatzak 26**

- 18:00-18:30.** Debabarrena Ekinean! Enpresen Azokari bisita.
- 18:30-18:40.** Ongi-etorria. Debegesaren eskutik.
- 18:40-19:10.** Hitzaldia "MENTORING ETA EKINTZAILETASUNA". Juan Luis Urcola, "Urcola Formación y Consultoría".
- 19:10-19:30.** 2011ko Debabarrena Ekinean! Errekonozimenduak. PLUS EKIMENA, IRAUNKORTASUNA eta TALDE-LANA.
- Debabarrenako enpresei zuzendutako BAI INDUSTRIARI!**  
Errekonozimenduaren banaketa.
- 19:30-20:00.** Lunch-a TXIOKAren eskutik.

Debegesara etortzeko: **AUTOA PARTEKATU.** Sar zaitetz [www.facebook.com/debabarrena.emprende](http://www.facebook.com/debabarrena.emprende) helbidera eta jarri harremanetan Debegesara etorri nahi duten lagunekin. **Debabarrena Jasangarriago bat sustatzen lagunduko duzu!**

**Konfirmazioa eskertuko genizueke:** [ekintzaile@debegesa.com](mailto:ekintzaile@debegesa.com)



Education and Culture-DE  
Lifelong Learning Programme



**BOZKATU**  **hamaikabat**

# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak




**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

# EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

## KOMUNITATEAK